

ARGIA

Chivite lehendakari?

MADRILEN DUTE GILTZA

EAJ-PSE nagusi eta eroso

EH Bildu eta Podemos ezkerreko alternatiba osatu ezinean

Europar eskuin muturra gora, ez inkestek esan adina



2.646 | 2019 / 06 / 02 | 3,90 €



Zergatik lotsatu hegazkina hartzeaz?
20 | NET-HURBIL



Jaizkibel mendia ikasgela bihurtu du Hondarribiko Talaia eskola publikoak
32 | HEZKUNTZA



"Paperik ere ez duenak zer esango du politikaz?"
52 | MODOU FAYE "BELTXA"

PAPE NIANG HASIERA BERRI BAT

Mikel Garcia Idiakez

LIBURUAREN AURKEZPENAK

Solasaldirako aukera izango da

🕒 Ekainak 5, 19:00

📍 **BILBO**ko Bira Kultur Gunea

👤 Pape Niang, Mikel Garcia eta
Marta Abiega (*Bizkaia Harrera Sarea*)

🕒 Ekainak 6, 19:00

📍 **TRINTXERPE**ko liburutegia

👤 Pape Niang eta Mikel Garcia

Amud been nri ku leegakid



 **ARGIA**

LIBURUA
SALGAI!
14€

EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | M26 HAUTESKUNDEAK
 - 06 | NAFARROA
 - 10 | BATZAR NAGUSIAK
 - 13 | UDALAK
 - 13 | EUROPAR BATASUNA
 - 18 | ESPAINIAKO ESTATUA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | KOLDO ALDALUR
- 19 | CASTILLO SUÁREZ
- 20 | OIER GUILLAN

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
MODOU FAYE "BELTXA"
- 54 | BERANDUEGI



MALEN OTXOA

44 | PELAX
Ezohiko disko bat aterako dute eta Xalba Ramirez beraiekin izan da, proiektuaren nondik norakoen berri izateko.

M26 Hauteskundeak

- 6 | FORU HAUTESKUNDEAK
Nafarroan berriz gotorlekura
Xabier Letona Biteri
- 10 | BATZAR NAGUSIAK
EAJ-PSE erregimena indartu denean, EH Bildu ospatzera?
Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 13 | UDAL HAUTESKUNDEAK
EAJrentzat puntu lodiak, mapa huts batean
Urko Apaolaza Avila
- 17 | EUROPAKO HAUTESKUNDEAK
Kurt Waldheimen mamua Europako parlamentuan
Gorka Bereziartua
- 18 | ESPAINIAKO ESTATUA
Ezer erabaki aurretik, deitu Pedro Sánchezi
Pello Zubiria Kamino

Elkarrizketak eta erreportajeak

- 20 | NET HURBIL
Zergatik lotsatu hegazkinez bidaiatzeaz, trena hartzea baino merkeagoa baldin bada?
Pello Zubiria Kamino
- 22 | ANE ARBILLAGA
"Banderarik altxatu ez, eta hala ere, arraunean jarraitzen dutenak miresten ditut"
Danele Sarriugarte Mochales
- 32 | HEZKUNTZA
Jaizkibel mendian testuliburuetan baino argiago
Mikel Garcia Idiakez
- 36 | MINTZALAGUNA EGITASMOA
7.000 euskaldun 1.000 arnagunetan
Onintza Irureta Azkune

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asumendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpreekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

AMM S.L. Mantenimiento Industrial
REPARACIÓN DE BOMBAS Tel. 485 05 12

MOSC
604!S





“Glovok hil egiten du”


22 urteko langile bat hil da larunbatean Bartzelonako errepideetan Glovo garraio-entresa multinazionalarentzat lanean ari zela. Suminak lankideen protesta eragin du enpresaren egoitzaren aurrean. Glovo eta Deliverooen moduko enpresetako langileak prekaritatearen aurpegi bilakatu dira. Langileen eskubide gabeziaren aurkako ahotsak gero eta ugariagoak dira. "Autonomo faltsuak gara eta gure lanaren esklabo bihurtzen gara, autonomo kuota ordaintzeko ahalik eta lan gehien egitera eramaten gaitu eta horrek presioa handitzen du non eta oso arriskutsua den eremu batean: errepidea".

Nafarroan berriz gotorlekura



NAFARROAKO EMAITZAK

Nafarroa



XABIER LETONA

Aldaketaren indarrek patxada, odol hotza eta zintzotasuna beharko dute gertatutakoaren analisi egoki bat egiteko. Esaten denean Nafarroako gizartea aldatzen ari dela egia da, 2015ekoa ez zen espejismo hutsa izan. Baina bistan da, aldaketa horiek ez dute beti dantzatzen nahi izaten dugun erritmoan.

Oraingo emaitzek Nafarroaren azken 30 urteetako ohiko argazkira hurbiltzen gaituzte, baina argazki zahar horretan ere badira arrakalak: Navarra Sumari ia dena bikain aterata ere, akaso ez du gobernurik osatuko. Orain ikusiko da zer antza duten 2007ko PSNk eta egungoak, Fernando Purasek eta María Chivitek, igande gaueko lehen inpresioak betetzen badira, PSNk gidatu baitezake foru gobernua Geroa Bai, Podemos eta Ezkerraren sostenguarekin.

Udaletan ere urak lehengora itzuliko dira leku askotan, besteak beste Iruñean. Eskuinak eraginkortasunez batu ditu botoak eta ezker alternatiboak eraginkortasun bertsuarekin xahutu ditu. Instituzioetara aurkeztekotan hobe modu eraginkorrean egitea, bestela hobe indar horiek bestelako kausei ematea. Asiron efektua ere eman da, baina Geroa Bairen kaltetan. Iruñeak nabarituko du eta asko gainera, bereziki hizkuntza, generoa, sexua, lana edo bestelako esparru batean zapalketa motaren bat jasaten duen herritarrek.

Askapen prozesuak zapalkuntzatik sortzen dira, egia da. Baina gezurra da gizarte alternatiba "gero eta okerrago, gero eta hobeto" goiburua atzerakoi horren gainean eraiki daitekeenik. Haserrea akuilu bikaina bada ere, ilusio eta bizipozik gabe nekez eralda daiteke ezer.

Instituzioak gizarte aldaketaren muinean jartzen dituenak esperantzarako tarte gutxiarekin helduko dio hauteskunde biharamun latz honi. Aldaketa gizartearen dozenaka alor txiki, ertain eta handi horietatik elikatzen dela uste duenak kalean, ekonomian edota aktibismo sozialean gotortu beharko du, hurrengo aldaketa uneaetorriko bada –baita instituzionala ere– ezinbestean humus horretan haziko delako. ●

PARTE-HARTZEA
%72,15

Nafarroako Legebiltzarreko parte-hartze datua da. 2015ean %71,37koa izan zen eta joan den apirilaren 28ko Espainiako orokorretan %75,02koa. Datu historikoek diote, foraletako parte-hartzea 4-5 puntu gutxiago izaten dela, eta gehienetan honek UPNri eta PSNri eragiten die gehiago, bai. Oraingoan, aldiz, ez da hala izan.

%9

Hori da Iruñeko Udaletan Podemos, Izquierda-Ezkerrak eta Aranzadik batera bildu duten boto portzentajea (8.637 boto). Urruti dago 2015ean lortu zuten %15etik (15.556 boto), baina orain akaso lortuko zituzketen hiru bat eserleku. Horrek ez lioke alkatetza emango Asironi, baina erakusten ditu banaketaren ondorioak.

ALDAKETAREN
UDAL JARIOA

Tutera, Barañain, Lizarra, Tafalla, Eguesibar eta beste herri askotan irabazi du Navarra Sumak eta horietan alkatetza berreskuratuko du. Beste askotan, PSNk erabaki beharko du Navarra Sumaren ala aldaketa indar aurrerakoien eskuetan uzten duen.

IRITZIA

Espartzari eskertu beharko?



BIXENTE SERRANO IZKO

Espartzari eskertu beharko ote diogu PSN ez batzea Navarra Sumarekin nafar gobernua osatzeko? Horrela dirudi, emaitzen osteko Espartzaren lehen hitzak entzunda: "Ez dugu Chivite presidente eginen, ez gure botoekin, ez abstentzioarekin". Chivitek, berdintsu Espartzari buruz, bere jarraitzaile sutsuen oihuen aurrean ("Espartzarekin ez!"). Ba al dago fidatzerik Chiviteren hitzekin? Chivite ez da Sánchez eta ez du lortu lehen indarra izatea, bere berreskurapenaren despit. Alde handia hartu dio Navarra Sumak, eta ezinen du berez GB, Ahal Dugu eta I-Erekin bakarrik gehiengoa lortu, Chivitek nahi duen bezala EH Bildu baztertuz gero. Zaila du, Sánchezek baino zailagoa, gaien arabera akordio puntualak lortzea ezker-eskuinera jokatzeko. Hitzarmen sendoagoa lortu beharko luke bere balizko kide ezkertiar nafarrekin, EH Bilduren abstentzioaz gain. Chiviteren temak ez du ezer onik iragartzen.

Gerri fina du Chivitek, inbidiagarria ere, baina fina bezain zurruna, behintzat ezkeraldera gorputza makurtzeko. Ezin du ulertu Nafarroan ezkerak eta aurrerakoiek gai sozioekonomikoei soilik ez, gai kulturaleri ere (euskara barne) eutsi behar dietela giro demokratiko integraztaile bat sortu nahi badute. Chiviteren ikuspegi kulturala, batik bat Nafarroako hizkuntza aberastasunari dagokionez, gertuago dago UPNren diskurtsoetik bere balizko kideenetik baino. Aberastasun horren aldeko eskaerak identitate kontu gisa, eta ez kontu demokratiko gisa, ulertzen tematzea ez da batere integraztailea. Eta hain gogor ikuskera horri eustea nafarron ideien pluraltasunari uko egitea da. Chiviterengatik izanen balitz, gustura jasoko lituzke PSNk Navarra Sumaren botoak presidentetza lortze aldera.

Espero dezagun, bada, Espartzari eskertu behar izatea PSN-UPN-C's gobernu koalizioa, agerikoa edo itzalpekoa, ez gauzatzea. ●

ERREAKZIOAK



Uxue Barkos
GEROA BAI

Nahi zituzten emaitzak ez lortu arren, oraindik ere "badago aukera gobernu progresista bat gauzatzeko", azpimarratu DU Nafarroako lehendakariak. Horretarako, PSN, Podemos eta Izquierda Ezkerra hartu ditu kontuan, "EH-Bilduren abstentzioarekin". "Gizarteak bai esan dio Geroa Bai", eta "orain arte bezala lanean jarraitzeko konpromisoa" berretsi du.



María Chivite
PSN-PSOE


"Nafarren konfiantza berreskuratu dugu, berreskuratu dugu Nafarroako sozialistak izatearen harrotasuna". Erakunde guztietan ordezkaritza lortu dutela nabarmendu du PSNko buruak. "Hauteskundeetan zehar esandakoarekin koherente izango gara; gobernu aurrerakoi bat lideratu nahi dugu, ez dizkiogu gure botoak Esparza jaunari emango".



Javier Esparza
NAVARRA SUMA

"Nafarroak hitz egin du eta esan du ez duela nazionalismo eta populismo gehiagorik nahi. Orain, bi gobernu baino ez dira posible: Navarra Sumarekin edo nazionalistekin. María Chiviteri deituko diot, gobernu konstituzionalista osatzeko. Ez dugu Chivite presidente egingo, ez dizkiogu gure botoak emango eta ez gara abstentituko".

BLOKEEN EBOLUZIOA NAFARROAN



GAIZKI ERRANKA

Egoak ebaki banizkio



SANTI LEONÉ

Udal hauteskundeetan inportanteena pertsonak direlakoan, Aranzadiko zinegotzizgai batek hautagaien soziologia bizkorra egin zigun maiatzaren 24an sare sozial batean: "Enrique Maya, arkitektoa"; "Joseba Asiron, eliteko eskola pribatu bateko irakasle" (Eton?); "Itziar Gomez eta Maite Esporin, 20 urtez politikatik bizitzen"; "Eduarne Eguino, Nafarroako Gobernu teknikaria"; "Andoni Romeo, 1989az geroztik elkartasun ekonomian, 1.045 euro kobratzen du hilerro". Galdemodua zuen falta txioak: burges txiki nazkagarrien zerrenda honetan, zein da lekuz kanpo dagoen klase langileko heroia? Edo, zeinek du bizarra urdindu eta desordenatua, proletarioen egoera petralak sortzen dion kezka dela eta? Zientzia politikoa hainbertze ikasi ondotik, marka da gero horrelako sinplekeriak idaztea.

Hondarreko nabalkada izan zen, nabarmenkeria, ego erakustaldi eta arduragabekeria zerrenda luze batean hondarreko haurkeria. Arazandik, Ahal Duguk eta Ezkerrak Iruñeko Udalerako lorturiko botoak Geroa Bairenak baino gehiago dira. Bereiz aurkezturik, udaletik kanpo gelditu dira hirurak. Saria badute, halere: egiazko ezkerraren argia piztua duen kandela sukaldeko arasan jartzen ahal dute, malkoak begietan. Begira diezaiotela tarteka, printzipio orbangabeak atxiki izanaz harro, baina hausnar dezatela bidenabarkoan zer den noizbehinka amore ematea, zer den akordio taktikoak egitea, zer den proiektu baten aldeko talde lana egitea. Ez dakit orain artioako udal gobernuarekin beren programaren ehuneko zenbat betetzen ahal duten; heldu denarekin, berriz, errazagoa da kalkulu zehatza egitea: %0.

Hiru alderdi horiek *-the unsullied-* ez dira udal hauteskundeetan Iruñean aldaketak porrot egin izanaren erantzule bakarrik, bistan da. Baina franko ekarpen handia egin dute. Esker mila anitz, beraz. ●

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"HAINBAT SEKTOREK GOGOETA EGITEKO UNEA DA"

JOSEBA ASIRON, IRUÑEKO ALKATEGAIA EH BILDUTIK

"Oso emaitza onak izan ditugula nabarmendu behar da. %16tik ia %25era igo gara, eta hori da lau urteotan egindako lan onaren emaitza. Hemendik aurrera paktu eta abarrekin gertatzen dena gertatzen dela, burua tente joan gaitezke, ez digute irribarrea ahotik kenduko. Iruñea ezkertiarra eta aurrerakoia da. Eskuin guztiak batuta etorri diren Estatuko leku bakarrenetakoa da hau". Bestalde, azpimarratu duenez, "bozen %8 bat dago ezkerrekoa dena eta boto sakabanaketagatik ordezkariarik gabe geratu dena. Hainbat sektorek gogoeta egiteko unea da eta akatsa izan dela onartzekoa". 2019/05/26




EAJ PSE-EE FORMULA

Eroso daude EAJ eta PSE-EE elkarrekin gobernatzen, eta behar izanez gero, formula errepikatu-ko zutela adierazi zuten hauteskunderen aurretik. Pentsatzekoa da, beraz, tandemari eutsiko diotela, EAEko erakunde gehienetan berdin jarraitzeko. Eneko Goia Donostiako alkateak esana da, hauteskunde gauean bertan: "Gure izaeraren parte da besteekin hitz egin eta akordioak lortzea". Eta ohikoena da akordioa PSE-EEekin izatea.

EH BILDU ETA PODEMOS

EH Bilduk gobernatzeko ahal-ahala galdu duen arren, pozarren mintzatu zen Arnaldo Otegi hauteskunde gauean: "300.000 boto atera behar genituela esan genuen eta 345.000 boto atera ditugu; sekula EH Bilduk ateratako emaitzarik onena". Elkarrekin Podemoseko Lander Martinez, kezu azaldu zen: "Kanpaina lehia bezala planteatu da EAJ eta EH Bilduren artean eta bista-koa da lehia horretan kosta egin zaigula toki bat egitea".

BLOKE INSTITUZIONALAK EAE-N



EAJ-PSE erregimena indartu denean, EH Bildu ospatzera?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

EAJ izan da lehen indarra Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundietan. Hiruetan egin du gora boto kopuruan, 2015arekin alderatuta: Araban ia 13.000 bozka irabazi ditu, Gipuzkoan 18.000 boto inguru gehiago lortu ditu eta Bizkaian indartu du gehien aldea, 43.000 boto inguru gehiago aterata.

PSEk ere gora egin du, nahiz eta hirugarren indarra den hiru lurraldeetan: Araban bera izan da gehien hazi dena, bost batzarkidetik hamarrera pasatuz. Bizkaian bat igo eta zortzi batzarkide izatera igaro da. Gipuzkoan mantendu egin ditu bederatzi ordezkariak.

Gobernatzeko ahalaria begira, Bizkaian EAJk gehiengo osoz gobernatzeko batzarkide bakarra falta du, Gipuzkoan sei eta Araban bederatzi. PSE-EEK baditu horiek eta gehiago.

EH Bilduk ospatzeko motiborik bila dezake hiru lurraldeetan bigarren indarra izan delako eta jasotako boto kopuruan gora egin duelako. Gipuzkoan 13.000 boto gehiago eskuratu ditu 2015ean baino. Bizkaian 10.000 boto egin du gora, baina batzarkide bat gutxiago izango du. Araban 1.000 boto gehiago lortu ditu, bigarren indarra bihurtuz.







Koalizio independentistak gobernatzeko ahala galdu egin du ordea 2015arekiko, hiru Aldundietan: Araban batzarkide bat gehiago izanik ere (12), EAJk berarekiko zuen aldea handitu egin du ordezkarietan. Zer esanik ez Bizkaian. Gipuzkoan EH Bilduk zituen 17ak mantendu ditu, baina EAJk bi gehiago eskuratu ditu, bi indarren arteko aldea handituz.


HAINBAT GALDERA MAHAI GAINEAN

Hauteskunde kanpainen irudikatu den EAJren eta EH Bilduren arteko lehia eta lurralde batzuetan parekotasuna, benetakoak ziren edo sustatutako irudikapenak? EAJ are indartuago atera baita errealtatean, eta ez hori bakarrik, gora egin du gobernatzerakoan sozio duen PSE-EEK ere. Beste aldean dago Elkarrekin Podemos, zeinak Araban eta Gipuzkoan batzarkideen erdiak galdu dituen, eta Bizkaian mantendu egin den.







EH Bilduk 2015ean baino askoz ere orokorragoa egin du kanpaina, lurraldeetako gaztaka zehatzei –errealitate adibidez– eta EAJrekiko talka aurrez aurre egiteari iskin eginez. EH Bildu koalizioa osatzen duten sektore bakoitzak bere jarrera indartzeko irakurketari hel diezaiok orain: botoetan gora egitea lortu dutenez komunikazio kanpaina (eta bide batez ildo politikoa) egokia burutu dutela esan dezakete batzuek; besteek esan dezakete botoetan gora eginagatik EH Bilduk gobernatzeko ahala galdu duela, EAJk lideratzen duen eredu indartzen doala eta eredu hori bera kuestionatzeko bestelako kanpaina (eta bide batez ildo politikoa) behar dela. Baina zein da EH Bilduren helburua? Botoak irabaztea edo herri hau burujabetza eta ezkerreko balioen arabera praktikan aldatzea? ●


Araba

	2019	2015
 EAJ	47.510	34.406
 EH BILDU	33.841	32.467
 PSE-EE	30.481	17.803
 PP	24.156	34.975
 ELKARREKIN PODEMOS	16.003	23.103
 CIUDADANOS	3.714	4.925
ABSTENTZIOA	% 34,93	% 34,3










Bizkaia

	2019	2015
 EAJ	255.861	212.656
 EH BILDU	116.862	106.576
 PSE-EE	97.652	70.361
 ELKARREKIN PODEMOS	62.490	82.107
 PP	39.190	46.354
 CIUDADANOS	7.025	12.012
ABSTENTZIOA	% 34,26	%37,40



Gipuzkoa

	2019	2015
 EAJ	130.767	112.933
 EH BILDU	116.113	103.101
 PSE-EE	62.788	59.046
 ELKARREKIN PODEMOS	32.831	43.136
 PP	17.303	19.388
 CIUDADANOS	3.686	5.262
ABSTENTZIOA	%33,38	%35,10



ERREAKZIOAK IRUDITAN



EH BILDU



PODEMOS EUSKADI



PSE-EE

IRITZIA

Ez da ezer aldatu?



ARANTZA URKAREGI

Hiru Batzar Nagusietako emaitzak ikusita, ematen du ez dela ezer aldatu, baina herrialdez herrialde aztertuta, aldaketa batzuk ikus ditzakegu.


Arabaren PPrene jaitsiera azpimarratu behar, 12 mila boza gutxiago, herena galduta. Baina baita Ahal Duguk eta Irabazik zuten botoen erdia baino ez duela Elkarrekin Podemosek lortu. PSE da gorakada handiena izan duena, EAJren aurretik. EH Bilduk batzarkide bat irabazi du, nahiz eta boz batzuk galdu. Aldaketa hauen arrazoia? EAJk oso ondo erabili du beldurraren boza, EH Bilduren kontra. PP kanporatu bai, baina Espainiako hauteskundeetan gertatutakoa (EH Bilduk PP kanporatu) errepikatu gabe.

Gipuzkoan, EAJ eta EH Bilduren artean zegoen lehia EAJk irabazi du. Bozetan diferentzia txikia izan arren, EAJk bi batzarkide irabazi ditu. PSEk 4 mila boza irabazi ditu, baina oso urrun geratu da Bizkaian eta Araban lortutako igorarik. Zergatik ez du lortu EH Bilduk EAJ gainditzea? Gipuzkoan ere EAJk oso kanpaina erasokorra egin du EH Bilduren kontra, baina hainbat udaletan gertatutakoaren kontra, Aldundia gobernatzeko konfiantza nahikorik ez du EH Bilduk lortu. Zergatiak azterketa pausoagoa eskatzen du.

Esango nuke Bizkaia dela gutxien aldatu dena. EAJk bi ezarleku gehiago, PP eta EH Bilduri bana kenduta, baina ez du gehiago osoa lortu, eta PSEk bat gehiago PPri kenduta.

Aurrera begira zer? Ez dut uste ezer aldatuko denik; EAJ eta PSEren arteko akordioa berretsiko dute hiru aldundietan. Hauteskunde gauean EAJko buruzagiei entzun diet alderdi guztiokin hitz egingo dutela, guztiokin akordioak egiteko prest. Ez diet sinesten. Aurreko legegintzaldian bestelako akordioak posible ziren eta EAJ eta PSE ez ziren atera zuten gehiengotik. Ez diet sinesten, gehiengo handiagoak lortzeko aukera egon arren, ez dituztelako gustuko, euren nagusitasuna kolokan jartzeko arriskuaren beldur baitira. EAJ eta EH Bilduren balizkoa akordioaz ari naiz. ●

EAJrentzat puntu lodiak, mapa huts batean



2019

	BOTOAK	UDALAK	HAUTETSIAK
EAJ	408.462	115	1.057 (1018)
EH BILDU	346.993	128	1.250 (1194)
PSE-PSN	239.709	27	461 (204)
NAVARRA SUMA	104.460	29	298
ELKARREKIN PODEMOS	82.474	0	65
PP	66.192	7	55 (98)
GEROA BAI	58.220	3	47 (59)

URKO APAOLAZA AVILA

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan izan dira udal hauteskundeak eta mapari begira aldaketa gutxi nabaritzen da duela lau urtekoarekin konparatuz gero, egon badauden arren kolorez mutatu diren udalerrri asko. Foru hauteskundeekin edo autonomikoekin sintonian dauden emaitzak dira: EH Bilduk eta alderdi sozialistak gora egin dute orokorrean, baina gorakada hori EAJren arrakasta itzelaren itzalean geratu da, eta Nafarroako kasuan Navarra Sumaren atzean.

Gipuzkoan EH Bilduk hainbat udalerrri berreskuratu ditu (Bergara, Zestoa, Ordizia...), baina EAJk eutsi dio zalan-tza gehien zituen lurraldean, esaterako Arrasate mantendu du eta Donostian hobetu egin ditu emaitzak. Bizkaian ere antzera gertatu da PSEekin: Ezkerraldean zuten lehian jeltzaleak garaile izan

dira (Sestaon, Barakaldon, Santurtzin...) eta Bilbon gehiago osotik zinegotzi bakarrera geratu da Aburto. Araban ere aldaketa nagusia EAJren alde: Audio poltsikoratu du. Eta Gasteizen ere garaile izan da, Urtaranen diskurtso soziala gogorra izanagatik ere.

Nafarroan berriz, Na+ gailendu da Iruñean, Tuteran, Barañainen, Tafallan... Iruñerriko hainbat udalerritan eta Nafarroa iparraldean EH Bilduk eutsi dio baina. *Ager* eta *saltus*-aren arteko lerroa gero eta nabarmenagoa ote da?

Azken lau urtetako diskurtso, politika eta estrategien ondorio dira emaitza hauek. Duela lau urteko udal hauteskundeetan Gipuzkoan izandako galeratik EH Bilduk interpretatu zuen ezin zuela arlo sozialean "herritarrak baino aurrerago" joan eta abertzaleen artean erreferentzialtasuna lortzeari ekin zion, gai eta eskubi-

de orokor eta transbertsalak aldarrikatuz. Baina ezker abertzalearen indarra borroka lokaletan egon izan da tradizionalki, herri eragileekin bat eginda. Tokiko problematika zehatzen inguruko eztabaida gutxiago sumatu da hauteskundeotan, eta aztertu beharko litzateke horrek zer kalte edo onura ekarri dion alderdi bakoitzari.

Udal hauteskundeotan oraindik aztertze dagoen beste gai bat demografikoa da. Landa eta hiriburuen artean dagoen desproporzioak eta batez ere Nafarroako mendialdeko eta Arabako eremu zabal-letan gertatzen ari den despoblazioak eragin handia dauka udal politikan. Ez bakarrik hauteskunde zerrendak osatzeko garaian, baita mankomunitate eta bestelako entitateen bidez administratiboki gestionatzeko orduan ere. Saihestu behar da soilik puntu lodiak dituen mapa huts bat, herriak bizi daitezten. ●

PROTAGONISTAK

**"Asiron efektua"**

EZ DA NAHIKOA IZAN

Iruñeko Udala galdu dute aldaketaren indarrek, alkatetza zuen EH Bilduk hiru zinegotzi gehiago lortu arren. Geroa Baik beste horrenbeste zinegotzi galdu ditu. Ezker ez-abertzalearen banaketak oso emaitza txarrak izan ditu. Aurrekoan Aranzadik hiru zinegotzi eskuratu zituen. Oraingoan, Podemos inguruko hiru hautagaitzak kalean geratu dira, %5eko muga gainditu gabe.

**Gorka Urtaran**

HIRUGARREN IZATETIK AURRERA

EAJk gogotik ospatu ditu Gasteizko emaitzak. Miren Larrion EH Bilduko hautagaia hirugarren geratu da, urrun alkatetza eskuetan jartzen zioten inkestetatik; zituzten sei zinegotzietatik eutsi diete. PPren gainbeherak ez du etenik Arabako hiriburuan, lau zinegotzi galdu ditu. Lau eserleku horiek EAJ eta PSEra joan dira, bakoitzarentzat bina.

**EAJ nagusi**

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN

Boto eta zinegotzi kopurutan, inoizko emaitzarik onenak eskuratu ditu EAJk. Lehen indarra da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan, baita hiru lurraldeotako hiriburu eta hiri nagusietan ere. Lehia nagusiak ere irabazi dituzte: Laudio, Barakaldo, Gasteiz eta Gipuzkoa, Ortuzarrek aipatu duenez: "Eskerrik asko zuen babesagatik, gure kudeaketari abala eman eta etorkizunean egingo dugunarekiko konfiantza duzuela erakutsi duzue".

**Sémpere eta beste hiru**

ZINEGOTZI PP-K GIPUZKOAN

Boto, eserleku eta zinegotzitan galdu egin du alderdi popularrak. PPren kataklismoa nolabait geraraztea lortu du Borja Sémpere Donostian, eta zituzten hiru zinegotzietatik eutsiko die PPK bertan. Orotara, Gipuzkoan lau izango ditu, inoizko baxuena; Donostiakoek gain, laugarren bat eskuratu dute Irungo Udalean. Alfonso Alonso alderdiak EAEn duen buruaren lehen erreakzioaren arabera, "oposizioan lanean aritzea dagokigu".

IRITZIA

Hiriburuetan aipatzekoak

GARBIÑE BIURRUN

Udal hauteskundearen xarma eta emozio bereziak islatu dira oraingo honetan ere. Emaitza nagusiak ezagunak dira: EAJ nagusi, Iruñean izan ezik; EH Bildu bigarrena Donostian eta Iruñean eta hirugarrena Bilbon eta Gasteizen; PSE bigarrena Bilbon eta Gasteizen eta hirugarrena Iruñean eta Donostian.

Gasteizen ez da gertatu espero zen lehia estua eta PSE, sorpresaz, bigarren indarra izan da, Larrion hirugarren utzirik. Zer gertatu da? Alde batetik, PPren porrota eta berak galdutako 4 eserleku EAJri eta PSEri joan zaizkiela. Eta, noski, Urtaranen lanaren balorazio positiboa.

Iruñean, Asiron alkateak emaitza oso onak izan arren, Navarra Sumaren emaitza hobek, Geroa Bairen emaitza kaskarrak eta Podemos desagertzeak ez diote gobernatzen utziko. Hori, baldin eta ez bada lortzen EHBilduren, PSNren eta Geroa Bairen arteko dagoeneko PSOEk ezinezkotzat jo duen akordioa.







PPren markatik ihes egin duen Sémpere emaitza txukuna lortu du, Donostian ordezkari mantenduz, baina horren interpretazioa ez da hain ximplea, zeren eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan Canok, PPren eskutik, eutsi dio 2015eko emaitzari. Beraz, marka edo ez marka, Gipuzkoan PPren emaitzak nahiko "eguneratuta" zeuden 2015etik. Bestalde, Gascoren porrot handiak lagundu dio PPri bere emaitza mantentzen.


Beraz, EAJ nagusi EAEko hiriburuetan eta, nahiz eta bere bigarrena EH Bildu edota PSE diren, ikusiko ditugun itunak orain artekoak izango dira, erakundearen egitura errepikatuz -bizitza luzea dauka EAJ-PSE akordio orokorrak-, benetako ezkerreko adostasunak eta gobernu alternatiboak zailduz. Horretarako jasoko zituzten bi alderdi hauek PPK galdutako botoak, noski, EAEko eskuina eta konstituzionalismoa indartzeko.

Eta beste behin ere, lau hiriburuetako buruak, gizonak. Honetan ere aldatariak ez. ●







HIRIBURUETAKO EMAITZAK


Bilbo

	2019	2015
 EAJ	71.822	63.642
 EH BILDU	25.138	22.711
 PSE-EE	26.783	19.361
 ELKARREKIN PODEMOS	17.661	-
 PP	15.441	19.190
 CIUDADANOS	3.722	-









Donostia


	2019	2015
 EAJ	34.065	29.029
 EH BILDU	20.367	20.467
 PSE-EE	16.851	24.007
 PP	10.340	9.272
 ELKARREKIN PODEMOS	9.476	-
 CIUDADANOS	1.572	-









Gasteiz

	2019	2015
 EAJ	28.241	19.945
 PSE-EE	25.524	14.313
 EH BILDU	24.529	23.422
 PP	22.094	35.722
 PODEMOS, EZKER ANITZA, EQUO*	11.774	-
 CIUDADANOS	3.041	-


*Podemos, Ezker Anitza - IU, Equo Berdeak




Iruñea

	2019	2015
 NAVARRA SUMA (UPN+PP+Cs)*	43.643	39.287
 EH BILDU	26.691	17.004
 PSN	17.417	10.293
 GEROA BAI	8.406	16.114
 PODEMOS	4.113	-
 IZQUIERDA-EZKERRA	3.657	5.829

*Navarra Sumaren 2015eko botoak UPN, PP eta Cs-renak batuta dira.





EUSKAL HERRIKO BOTOAK EUROPAKO PARLAMENTURAKO

	2019	2014
EAJ - EUROPA SOLIDARIOAREN ALDEKO KOALIZIOA	406.537	220.885
EH BILDU - ORAIN ERREPUBLICAK	300.790	220.137
PSOE	306.729	135.634
PP	135.585	131.334
PODEMOS+IU	163.361	150.189
CIUDADANOS	55.417	10.026
LA RÉPUBLIQUE EN MARCHÉ!	30.116	0
VOX	27.883	7.589
GEROA BAI	27.146	
EELV	19.368	11.966
RN	17.383	13.968
PACMA	12.793	8.443
LES RÉPUBLICAINS	10.542	21.320
PS	8.856	12.507
LA FRANCE INSOUMISE	6.513	-
JXCAT	6.387	-

EUSKAL HERRITARRAK EUROPAKO LEGEBILTZARREAN



IZASKUN BILBAO
EAJ



PERNALDO BARRENA
ORAIN ERREPUBLICAK



IRATXE GARCIA
PSOE



EIDER GARDIAZABAL
PSOE



ADRIANA MALDONADO
PSOE



FRANCISCO JAVIER ZARZALEJOS
PP



ANTONIO LÓPEZ-ISTÚRIZ
PP



IDOIA VILLANUEVA
PODEMOS



MAITE PAGAZAURTUNDUA
CIUDADANOS

● Beltzez, Hego Euskal Herrian aurkeztu diren alderdiak.
● Gorritz, Ipar Euskal Herrian aurkeztu direnak.

IRITZIA



UN PHOTO/D. BURNETT

Kurt Waldheimen mamua Europako parlamentuan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bi atzapar handi eta itsusi ikusten dira Europako hauteskundeetako emaitzen mapa koloredunei begiratzean. Salviniren Italia, Le Penen Frantzia. Bi atzapar luzeren falangeak, Europar Batasunaren zintzurra estutu nahi eta ezin. “Ez dute lortu”, diote onkeriaz zenbait aholkari. Okerragoa zirudien panoramak inkestei erreparatuz gero. Akaso egia da, alderdi neofaxistek gora egin dute, baina ez Europako parlamentua baldintzatzeko lain. Salbu gara?

Kontua atzaparrak badira, Kurt Waldheim zenarenak gogoratu behar dira la-saitasun mezuak zabaltzen hasi aurretik. 1986, Austriako hauteskunde kanpaina hastear, eskandalua prentsan: argitaratu denaren arabera Waldheim, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi ohia eta alderdi kontserbadoreko hautagaia, naziekin ibili zen II. Mundu Gerran.

Derrigortuta joan zen soldadu, dio Waldheimek; frontean zauritua izan ondoren ez zuen gauza handirik egin, eransten du. Paperek beste zerbait diote ordea: gaztetatik nazional-sozialisten aldeko, 1942an Kozarako (Jugoslavia) partisa-noen masakrean arduradun, 1943an Tesalonikatik (Grezia) milaka judu deportatzen aritua. Gauza ilunak, zikinak, itsusiak, hiltzaile profesionalaren usainekoak. Ruth Beckermann zuzendariak Berlingo zinemaldian zeresana eman zuen iaz *Waldheims Walzer* dokumentalarekin –Tabakalera eman dute duela gutxi–. Lan horretan kontatzen da nola erreakzionatu zuen Austriako gizarteak eskandalua-ren aurrean: hori dena jakin arren, presidente hautatu zuten.

Historiak gaurkotasun erabatekoa du, Europak oraindik garbitu gabe daukan iraganaren berragerpena erakustez gain, ardi larruz jantzitako otsoen kontakti-zuna delako. Nominalki Waldheim ez zen alderdi faxista bateko kide, eta nazi ohia izan arren, milaka herritarren bedeinkapenarekin izan zen Austriako presidente 1992ra arte. Zenbat hautetsi ote doaz orain Bruselara demokrazia besarkatuta eskuin muturra bezain politika oldarkorrek egiteko asmoz? Salviniren eta Le Penen atzaparrak itsusiak dira. Europar Batasunaren neurri konkretu asko ez dira askoz politagoak, marka zuriko alderdiek eginak badira ere. ●

IRITZIA

Europar Batasunak lasaiago arnasten du



ASIER BLAS

Inkestek zentroko koalizioak gehien-go galduta zezaizkela aurrean bazuten ere, azkenean sozialdemokraten, liberal-demokraten eta popularren arteko koalizioak gehiengo osoari eutsi dio Europako parlamentuan. Honetan izan du zeresanik partaidetzak, %51k botoa eman du, orain bost urte baino %8,5 gehiago, eskuin muturraren aurkako mobilizazioak eta herrialde batzuetako hauteskunde desberdinen arteko kointzidentziak lagunduta.

Berdean olatua uste baino tamaina txikiagokoa izan da; adibide paradigmatikoa Alemaniakoa da: azkeneko asteetako inkestek berdeek sozialdemokrateri aurre hartuko zitela iragarri zuten, baina azkenean SPDek berdean emaitzak ia hirukoiztu dituzte. Berdeak-Europako Aliantza Librea talde parlamentarioak 15-20 diputatu inguru irabaziko ditu, gutxi-asko Ezker Unitarioak galduko dituenak eta, beraz, Europako parlamentua zentratu egingo da ezkerretik.

Eskuinetik ordea, populismoaren eta euro-eszeptismoaren igoera izan da, nahiz eta ez inkestek iragarri zuten tamainakoa. Italian, Frantzia eta Erresuma Batuan euro-eszeptikoez irabazi dituzte hauteskundeak, baina herrialde horietatik at, Europako mendebaldean ez dituzte espektatibak bete. Ekialdean nazionalista-kontserbadore eta liberal-mendebaldar zaleen arteko lehian ez da sorpresa handirik egon, indarrak orekatuak daude Hungarian izan ezik, Orbanen alderdiak gehiengo osoa lortu du-eta. Gauzak horrela, Europako parlamentuko interes gune inportanteenetakoa izango da preso eta erbestean dauden katalan europarlamentarien borroka kargua hartzeko. ●

KATALUNIA 819.845

Bartzelonan eta Lleida beza-lako beste hainbat hiritan boz gehien lortu duen alderdia da ERC. Orotara JxC-ek baino 280.000 boto gehiago jaso ditu udal hauteskundeetan (guztira 819.845 boto). Zituen bi helburu nagusiak lortu ditu beraz: Bartzelonan nagusitzea, eta preso duten Oriol Junqueras Europako Parlamentura eramatea. Gainera, Bartzelonako Diputazioa ere eskura lezake.

GALIZIA

Galizian, aldaketaren ikur ziren hiru hirietan, A Coruña, Santiagon eta Ferrolen, Marea Atlántica, Compostela Aberta eta Ferrol en Común alderdiek gehiengo galdu dute, PSOEren mesedetan. Litekeena da, halere, PSOEek gobernu-akordioak egitea hiru alderdiok. Sozialistek, halaber, gehiengo osoa lortu dute Vigon. Pontevedran alkatetzari eutsi dio BNG-k.

MADRIL BARTZELONA

ERC nagusitu da Bartzelonan, Frankismoaz geroztik lehenbizikoz. Ernest Maragallen hautagaitzak 10 zinegotzi lortu ditu, Barcelona En Comú alderdiak bezalaxe, baina boto gehiago bilduta. Madrilén, Manuela Carmenaren Mas Madriderik lortu du boto kopuru gehien, baina PSOErekin elkartuta ere, nekez lortuko luke alkatetza. PP, C's eta Voxen arteko baturak zinegotzi bat gehiago emango luke.



Ezer erabaki aurretik, deitu Pedro Sánchezi

PELLO ZUBIRIA KAMINO

#M 26-ko gauean hedabide espainiarrek 1930eko hamarkadako kontzeptu bikoitza berpiztu zuten: “*las derechas*” eta “*las izquierdas*”. Baliteke datozen hilabete eta urteetan berriro nagusitzea kontzeptuok, *España* versus *ez-España* aldarrikapenen inguruan gero eta gotortuago eta pixkanaka Europatik indarreaz datorkigun *europazaleak* versus *euroeszeptikoak* binomioarekin gurutzatuta.

Ada Colau Bartzelonako alkateak, 2008ko krisitzarrak berotutako marea ezker-tiar-aldazaletik duin geratu den agintari bakarretakoak, uhin independentistak bataila irabazi diola aitortuz zorrotz laburbildu du 2019ko maiatzeko egoera: “*Han canviat les prioritats de l'agenda política*”. Katalanez ez dakitenek ere ongi ulertzen dute, hain da orokorra...

Jendearen haserrea kapitalizatu zuen Podemos fenomenoak ez du funtsik erakutsi, komunikazioan ekarritako berrikuntzez gain, eta hura hondoratzearekin bateratsu indartu da Vox neofaxista. Aldaketa esperimenduak haizeak eraman ditu Podemosen oinarritzen ziren instituzioetan eta gudu berrietarako bizirik geratu dira soilik ezkerretik profil autonomo garbia daukatenak, Bartzelonan bezala Valentzian edo Cadizen.

Espainian *ezkerra* esatea gaur PSOE eta Pedro Sánchez esatea da, alderdian mututu zaizkio lotsagabeak, Europako establishment sozialdemokrata + liberalaren erreferentzietako bat da. Aldi berean, aurrean dauzka *las derechas*, oroitzapen gaiztoenak pizten dituen eskuin-eskuineko multzoa, PP hainbat instituziotan egonkortuta, Cs hizkera zentrista aparkatuta eta Vox neofrankismoa konplexu barik instituzio guztietaraino eramanez. *Trifatxitoa* berez itzaliko zelakoan, ala?

Ezusteko asko gerta litezke penintsulan Espainiako Estatuaren instituzio gehienak berrantolatu behar diren honetan, jokoan baitaude Espainiako gobernu, udal, diputazio, horien inguruko zientoka erakunde, hainbat autonomi elkarte... ahaztu gabe gure eguneroko bizitza arautzen duen Europar Batasunaren agintaritzak. Eta 1936an bezala, geopolitika ere jokalaria ariko da *zezen-larru* maitearen edozein partidan, Hego Euskal Herrikoetan barne. ●

IRITZIA

Ezkerreko baloreak



JUAN MARI ARREGI

Terni hiri industrialia da, Italiako gerriko gorria zenean kokaturik. 110.000 biztanlerekin, siderurgiak 12.000 laguni ematen zien lana lehen, baina orain sektorea ez da 2.400 langilera iristen, azpikontratak kontuan edukita 3.000 lagun besterik ez dira bizi industriatik. Italiar hiri hartako jende langilearen %80k botoa ezkerri ematen zion lehen. Orain, gehiengoa langabezian dago eta Liga bozkatzen du, Salviniaren alderdi ultraeskuindarra. “Ezkerrek traizio egin digu”, dio 49 urteko Emanueleek, abandonaturik sentitzen den langileetako batek. Ezkerra desagertu egin da auzo langile historikoetan eta ultraeskuinak irabazi du, “italiarrak lehenago, bukatu dira etorkinak” mezua zabalduz.

Historia hori ez dagokio soilik Italiari. Gainerako Europan ere giro hori dabil, ezkerreko erakunde, alderdi eta sindikatuek euren izaerari uko egin diotelako. Kapitalarekin akordioak eginez eta gobernuak edo administrazioak oso modu eskasean kudeatuz –buruzagien arteko ustelkeria barne–, langileak eta sektore herrikoiak engainatu dituzte. Bestela, nola uler liteke langileak eta migratzaileak biltzen diren guneetan eskuinak eta ultraeskuinak irabaztea?

Espainiako Parlamentua berri du duela gutxi –euskaldunen presentziarekin–, eta orain udalak, foru aldundiak, gobernu autonomoak eta Europar ganbera ere bai. Garaia da egoerari aurre egin eta langileak eta jendarteko sektore zapalduenak babesteko, izan emakumeak edo migratzaileak. Beharrezkoa da ezkerreko baloreak sustatzea, hala nola justizia, askatasuna, elkartasuna, berdintasuna, integrazioa, autodeterminazioa, gardentasuna, Kapitalaren eta ustelkeriaren kontrako mobilizazioa... Gizarte justu, aske eta solidarioago baten alde gaudenon ekina eta konpromisoa eskatzen du horrek. ●

ERREAKZIOAK SAREAN



PODEMOSEN MUNDUA EZ EZIK, ABERTZALEEK INDAR GUTXIAGO BATZEN DUTE BAI NAFARROAN, BAI IRUÑEAN. UPNRI CSEKIN AURKEZTU IZANAK EZ DIO BABESIK KENDU. ETA HAU DA NAFARROAKO ERREALITATE SOZIOPOSITIKOA. DEUSKAL PROIEKTU NAZIONALAK PORROT HANDIA JASO DU

@SA_Aitor



PSN-K DAUKA ZARTAGIA KIRTENETIK. HAIEN ERABAKIA IZANGO DA ESPAINOLISMOARI LEHENTASUNA EMOTEA USTELKERIA ETA XAHUTZEA BANDERA GISA DUEN GOBERNU BATEN ALDE, ALA BURUA ERABILTZEA ETA, BALDINTZA GOGORRAK EGON ARREN, ALDAKETA BULTZATZEA

@daneldeprado



PODEMOSEKO DIPUTATUAK:
ASTURIAS: 9TIK 4RA
GAZTELA MANTXA: 3TIK 0-RA
EXTREMADURA: 6TIK 4RA
GAZTELA LEON: 10ETIK 1ERA
BALEARRAK: 10ETIK 6RA
ARAGOI: 14TIK SERA
MURTZIA: 6TIK 2RA
MADRIL: 27TIK 7RA
KANTABRIA: 3TIK 0-RA
KANARIAK: 7TIK 3RA
NAFARROA: 7TIK 2RA

ZUHAITZAK BIZIGARRI BERRIA BEHAR DU

@PabloMM



BETIBERDINISMOA GORROTAGARRIA DA

@martin_kitto



BA MADRILEN VOX-EK GOBERNATZEAK NI INOIZ EZ NAU URRUN HARRAPATUKO

@HiginiaRoig



BI HERRI, BI BIDE:
ESKOZIA, EUROPAZALEA,
BREXITAREN AURKAKOA;
GAINERAKO BRITAINIA
HANDIA, EUROSZEPTIKOA,
BREXITAREN ALDEKOA

@aimar_etxe



GUREAN ESKUIN ESPAINIARRAK LORTU DITUEN EMAITZA KASKARRAK AZPIMARRATZEN DITUZTENEI: EAJREN BOTO EMAILEEZ INGURUTUTA BIZI GARA, ETA EZ DITUZTE EZKERREKO POLITIKAK EGITEN

@inaxioesnaola

ZERGATIK LOTSATU HEGAZKINEZ BIDAIATZEAZ, TRENA HARTZEA BAINO MERKEAGOA BALDIN BADA?

Suedian gero eta bidaiari gehiagok hautatzen omen du trena hegazkinaren orde, klimaren krisiaz kezkatuta, atmosferara CO2 gutxiago isuri nahian. Suediaz harago ere gertatzen ari da: suedieraz *flygskam* deitzen dutena ingelesez diote *flight-shame*, nederlandera *vliedschaamte*, alemanez *flugscham*... Euskal Herrira iristen bada, *hegaldatzeko lotsa*. Baina nola ahalgetu hegan egiteaz, Baionatik Parisera –pentsa urrunago...– merkeago bazoaz hegazkinez trenean baino?

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Europako gazteria aspaldian inork gutxi bezala inarrosarazi duen Greta Thunberg apirilaren 25ean itzuli zen Suediako bere etxera European zehar 11 eguneko bira eginda. Stockholmeko geltoki nagusia hartu zuen lurra eta ez aireportuan, bidai osoa trenez egina zelako: apirilaren 14an abiatuta, 16an hitzaldia Estrasburgon Europako Legebiltzarrean, 17-18an Erroman eta tartean Vatikanon Frantzisko aita santua ikusten, 21-23an Londresen Extinction Rebellionekoekin egotera eta 25ean etxera.

Thunberg ez da hegazkinari uko eginez trena hartu duen bakarra. BBC telebista ingelesak kontatu ditu Suediatik Espainiako Andaluziaraino trenez bidaiatzea hautatu duten familien istorioak. Beste herrialde batzuetan bezala Suedian ere herritar askok sentitzen du hegaldatzeko lotsa, klimaren aldaketari hainbeste kalte egiten diola jakin arren hegazkina hartu izanagatik errudun sentitzetik abiatuta.

Bidaiariok ohiturak aldatu eta trenez egiten dituzte beren joan-etorri profesionalak eta bakantzak, harro aldarrikatuz sare sozialetan. Facebooken daukaten orria aurten bertan 4.000 zaletutik 77.000ra handitu da BBCK dioenez. Herritarren elkarrizketetan aipatzen dira hegaldatzeko lotsa [*flygskam*], trenaren harrotasuna [*tagskryt*] eta ezkutuka hegazkina hartzea [*smygflyga*], iruzurra.

Neguan eguzki bila atzerri urrunetara bidaiatzeko ohitura zabaldua daukan Suedian azken urteotako lehenbiziko al-

diz gutxitu egin dira hegaldiak, 2019ko lehe hiru hilabeteetan iaz epe berean baino 378.000 gutxiago irten dira hegan, adituek diotenez hango herritarren artean klimaren krisiaz zabaldu den kontzientzia hartzearen lekuko. Antza denez, suediarrek bereziki nabaritu dituzte tenperaturen igotzearen lehen eraginak naturaren erritmoen aldaketetan bezala jendeen eguneroko bizimoduan, eta sakrifizio pertsonal batzuk beren gain hartzea deliberatu dute, edo gutxiago bidaiatuz edo bidaiatzekotan garestiago den trena hautatuz.

Hegazkinek kutsadurari eta klimaren krisiari dagioten kaltea kalkulu ofizialean oso azpitik jota dagoela aspalditik ari dira salatzen zenbait aditu. Berrikitan *The Conversation* webgunean Aurelien Bigo unibertsitariak honakoa idatzi du: "Hegazkinezko bidai batek 1.500 aldiz gehiago kutsatzen du trenez egindako batek baino". Xehetasun argigarriak eskaintzen ditu.

Garraio bideen alderaketa egiteko gehienetan bakoitzak kilometroko zenbat CO2 emititzen duen kalkulatu da. Horren arabera, hegazkina da kutsatzailerena, automobila ia maila berekoa eta trenaren kutsadura 45-ez biderkatzen dute biek. Baina hegazkinak bien aldean oso distantzia handiak korritu ditzakeenez denbora berean, ez ote da komeni beste faktore bat ere zaintzea?

Kalkulua bidai-orduko egin dezagun. Euskaldun bat prest baldin badago bakantza lekura iristeko 10 orduz bi-

daiatzeko, autoz Espainia edo Frantzia zeharkatu ahal izango ditu, baina hegazkina hartzen badu kontinente osoa eta gehiago. Bigoren kalkuluetan, hegazkinezko bidai batean herritar batek autoz joandako batek baino 125 bider CO2 gehiago isurtzen du eta trenez bidaiatu duenak baino 1.500 gehiago. Zer ikusirik ez soilik kilometroka egindako alderaketetatik.

KUTSADURAK ETA ZERGAK BARKATUTA

Baina merezi ote du herritarrak kezkaraztea beren ametsezko asteburu batean Londresera edo Bartzelonara hegazkinez joateagatik, ibilgailu horri ez badagokio kalkulu ofizialean klimaren aldaketa eragiten duen CO2-aren isurketen %0,8 baizik? Frantziako datuak dira, ez galdetu existitzen ez den Euskal Herriko estatistikarik, arren. Nazio Batuen klimari buruzko biltzarretan itsas eta aireko garraioak kontabilizatzen ez badira, zergatik beldurtu herritarra?

Kontua da, dio Bigok, nazioarteko hegaldiak kalkuluetan sartuz gero garraioei dagokiela planetako CO2 isurketen %1,5 –Frantziak isurien %4,4, euskaldunok ez gara atzetik ibiliko–, ez da mesprezatzen kutsadura. Baina, gainera, CO2a ez da hegazkinen kutsaduraren atal bat baizik, gehitu behar zaizkio klimarentzako txit kaltegarriak diren NOx nitrogeno oxidoa eta gas gehiago, atmosferaren oso goiko geruzetan isuriak, denetara garmatzatenak kopuruak bi halakoz biderkatzena.



GRETA THUNBERG TREN EZ

IRITSI ZEN STOCKHOLMETIK
ERROMARAINO JOAN DEN
APIRILEAN, KLIMAREN
ALDEKO ALDARRIA
ZABALTZEKO BIRAN.

Alabaina, IATA Aire Garraioko Nazioarteko Elkartek aurreikusi du 2050 bitartean bidaiarien trafikoa bikoiztu egingo dela. Bidaiariak %3,5 ugarituko omen dira urtero baina hegaldien industriak eraginkortasun energetikoa hobetuko du urtero... %1,5. Klimaren krisia arintzerik ezin horrela espero.

Industriaren arrakastaren neurritzat balio dezake Europar Batasuneko hegazkinen kutsaduraren handitzeak: 1990tik 2014ra artean %110 gehiago. "Nola uler-tu hegazkinaren arrakasta hau?", galde-tu du Orivier Maryk *Reporterre* aldizka-rian plazaratutako "Les avions ne payent pas d'impôts mais polluent au maximum" [Hegazkinak ez dute zergarik pagatzen baina kutsatzen nagusi dira] analisisian. "Erraza da: urte luzez industria aeronau-tikoak metatu dituen pribilegioei esker. Batetik abantaila fiskalak eta bestetik

CO2 kuoten sistema, sektorea bizi da sa-soi aldirik onenean".

Hegazkin konpainien arrakasta oina-rritzen da Chicagoko 1944ko Itunean, zeinetan estatuek hitzartu baitzuten na-zioarteko hegaldietarako kerosenoak zergarik ez edukitzea. Geroztik salbues-pen hori zabaldu zitzaion estatu barru-ko hegaldietarako erregaiari, kerosenoa bihurtuz fiskalitate orotatik libre den erregai fosil bakarra.

Europar Batasunak, horrela galdu ditu urtean 10.000 milioi euro kobratu gabeko zergatan. Baina, hori gutxi balitz, hegal-dien industriak urrea atera dio klimaren aldaketaren kontrako estrategiari ere: 2012ko kopuruak aipatuz, Maryk dio CO2 kuoten merkatuan 700 milioi eta 1,36 miliar euro artean irabazi zutela.

Horiek eta gehiago dira lanean hasi aurretik gazte europar asko ikasketa bi-

daian Cancunera ez bada New Yorkera edo Baliraino joatea korriente bihurtu duten abantailak, hurbileko mugimen-duetan ere abioiak gero eta garraibide ohikoago bilakatu dituztenak, kalte gu-txiago eragiten duten garraibideei pre-ziotan irabazita.

Alabaina, batetik hegazkin eta autobu-sen konkurrentzia subentzionatua, bes-tetik AHT berrietarako desbideratutako inbertsioak, trenbide sare klasikoak gain behera etorrita daude. Gaur, garestiago ordaindu arren Europa tren ez zeharka-tzen tematu bazara, senperrenak ikusi behar dituzu ibilbide eta ordutegiak ja-kiteko ere. Esnobismoa, burugogorkeria ala erresistentzia baketsua? *Flygskam* sentitzen dutenek, hegazkinaz lotsatu-tako suediarrek, elkarri sare sozialetan laguntzen diete zailtasunak gainditu eta trenzko bidaiak antolatzen. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Ane Arbillaga

DENA EZ DA ZIABOGA



BANDERARIK ALTXATU EZ, ETA HALA ERE, ARRAUNEAN JARRAITZEN DUTENAK MIRESTEN DITUT



Diotenez, Pasai Donibanen, igerian baino lehen ikasten omen du pertsonak arraunean. Hain zuzen, Batelerak taldeak erakustaldia egin zuen iazko irailean: Kontxako bandera eskuratu zuen, bosgarren aldiz segidan. Dena irabazi ondoren, baina, hutsik geratu zen trainerua: udazkenean, partaideek jakinarazi zuten ezin zutela gehiago, eta kluba uztea beste aukerarik ez zutela. Donibandarra dugu Ane Arbillaga, eta historia egin duen arraun-taldeko kide izan da azken hiru denboraldietan. Donostiako portuan egin dugu hitzordua berarekin: bada bizitzarik ranplatik harago.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

 DANI BLANCO

Noiz hasi zinen arraunean?

Patroi hasi nintzen, 12 urterekin, 14 urtera arte. Gero utzi egin nuen, neska bakarra nintzelako, eta 16 urterekin itzuli nintzen kuadrillako lagun batekin. Baina Bartzelonara joan nintzen ikastera, eta hamaika urte pasa nituen han. Arraun egin nuen, banku mugikorreko modalitatean, hiru urtez, baina lesio handi bat izan nuen belaunean, eta gorenean nengoenean utzi behar izan nuen. Hona itzuli nintzenean, tesia bukatzear nengoela, arraun klubera joan nintzen etxera baino lehenago.

Zer dauka bada arraunak?

Egia esan, zaila da esplikatzeko. Oso kirol gogorra da: uda guztiak galtzen dituzu, opor guztiak galtzen dituzu, ez daukazu

bizitza sozialerako tarterik... Baina hori guztia egiteko prest dauden pertsonekin topatzen zarenean, badago zer bait, atxikimendu estu bat, lotzen zaituena bai konpromisora, bai taldekide sentimendura eta denak helburu berarekin lanean aritzeko grina horretara. Hori dauka.

Pertenentzia?

Talde kirol bat da, baina erantzukizun indibidual handikoa. Zure erantzukizunak eragina eta pisua dauka besteengan: zuk ez baduzu behar adina entrenatu, ezin diozu taldeari lagundu. Futbola, adibidez, taldean jokatzeko da, baina bata besteari kontra; arraunean, berriz, hamalau pertsona dira, helburu berdinarekin, keinu berdina egiten momentu oro, eta esfortzu maila berdinarekin. Hori du berezitasuna.

2009an egin zenuen lehen Kontxa, baina 2016an irabazi zenuen lehen bandera, San Juanekin. Nola oroitzen duzu?

Ez dut gogoratzen [barreak]. Leherketa hain izan zen handia, ez nuen ondo kudeatu. Ez daukat irudirik, ahaztuta dauzkat. Hor nonbait egongo dira... Bigarren bandera izugarria izan zen, eta hirugarrena askoz ere politagoa, esperientziak emozioen kudeaketa hobetuz ematen dizulako.

Hitz egin dezagun bigarrenaz, orduan. Itsaso txar-txarra izan zenuten.

Garaipena baino gehiago izan zen halako estasi bat. Ez zen arrauna, hori zen beste gauza bat: beldurretik poztasunera... Bizirik atera izana asko ospatu genuen, irabaztea baino lehenago.



Beldurra pasa zenuten?

Bai, baina gozatu, ere bai. Gu aurreko egunean etorri ginen, larunbatean, eta itsasora atera ginen. Larunbatean ere oso itsaso txarra zegoen; eta barneratu genituen soinuak, olatuen frekuentzia, altuera, indarra... horrelakorik nik ez nuen inoiz bizi. Iganderako bagenekien gutxi gorabehera zer egongo zen, eta ez genuen halako shockik izan; beste taldeek bai, ordea, guk larunbata osoa pasa baikenuen goizeko entrenamenduko shock sentsazioa asimilatu eta kudeatzeko balibideak bilatzen. Uste dut determinantea izan zela irabazteko.

Igandean banaka atera ginen, salbamenduko ontzi bat jarraika genuela, badaezpada. Hori zen egoera. Nik uste ez zela oso egoera ona arraunean egiteko, baina hala egin genuen.

Nola erabaki zen baietz?

Estropada pribatua da, Donostiako Udalarena. Parte hartzeko kriterio espeziifikorik ez dakit bazuten ala ez, baina egutegia hain estu edukita... Liga igandean amaitzen da, eta Galiziakoak Galiziara doaz, eta jendea oporretara doa... Orduan zer, atzeratu? Asteartera? Gure patroia ez zen egongo, beste talde bateko beste lau ere ez... Entrenatzaile batzuek baietz zioten, beste batzuek ezetz... Tirabira handiak egon ziren. Guk mutilek baino olatu okerragoak izan genituen, handiagoak eta bortitza-goaik, beraien txandan jaitsi zen pixka bat, eta pixka bat errazagoa izan zen. Esan beharra dago gurea ez zela oso segurua izan. Donostia Arraun Lagunak taldea arroken kontra joan zen. Zorionez, berehala egin zuten maniobra, baina 45 kiloko patroiak ezin du 200 kiloko ontzia eta beste gizakien 750 kiloko pisua kontrolatu, 5-6 metroko olatuekin. Guk oso talde sendoa geneukan, esperientzia handikoa, eta asko eskertu genuen egun horretan.

Iazkoa guztiz bestelakoa izan zen, ezta?

Azken bandera izan zen kristorena. Atera ginen gauzak oso argi egiteko asmoarekin eta bigarrenari sekulako aldea atera genion berehala: arraunean 25 segundo generamatzan, eta ordurako 2 segundoko aldea atera genion bigarrenari. Sekulakoa da. Errenta handiarekin iritsi ginen zibogara, eta bueltako luzean geldidune moduko bat egin genuen... eta gozamina izan zen.



ANE ARBILLAGAK UTZIA

Unean bertan jabetu zineten zer ari zineten bizitzen: San Juanen bosgarren Kontxa, jarraian.

Bai, zer ari ginen egiten, non geunden, zeinekin... Gutxik bizi izango dute. Kontxa beti izaten da lehia handia, baina horrela arraun egin eta horrelako tartearik lasai bukatzeko aukera eman zigun, eta bizipena betirako gogoratuko dugu.

Dena irabazi eta handik bi hilabete eskasera, kluba utziko zenutela iragarri zenuten Batelerak traineruko kideek, lehenik *El Diario Vasco*-ko elkarrizketa batean, eta komunikatu bidez, ondoren.

Guretzat oso gogorra izan zen, bai egoera, bai egoera salatu beharra, baina gogorragoa izan zen pasatu genuen gutzia pasatzea. Ez genuen asmatu jendeari ondo halarazten edo ondo azaltzen. Jendeak ez gintuen ondo ulertu.

Zergatik?

Ikasi genuen norbaitek elkarrizketa egiten badizu, bai ala bai, argitaratu aurretik irakurri behar duzula, arazo asko ekidin daitezke horrela. Kazetaritzak hitzen transmisioan muga batzuk ditu, eta gaia ez zen erraza. Egiak esateko moduak daude, eta egiak izan daitezke erdiak edo osoak, eta gezurra diruditenak, azken finean, ez dira ge-

zurak ondo esaten badituzu. Ez genuen moduarekin asmatu. Sentsazio horrekin geratu ginen batzuk, zeren ez zen ondo islatu esan nahi genuena.

Zer esan nahi zenuten?

Salatu nahi genuen taldeak bizi behar ez lituzkeen egoerak bizi izan zituela, eta horrek halako mina egin zigula, ezen utzi egin genuen kluba. Dena irabazita ere. Ez genuen uste hori transmititzea hain zaila izango zenik. Salatu behar zen bai ala bai, zeren isilik geratzeak ez du inongo eraginik izaten: salatu behar genuen dena irabazi zuen taldeak zelako egoera sufritzen zuen, eta ez zela sentitzen jarraitzeko gai, barkamena eskatuta ere. Hori ere larria da, porrot egin zuten konpontzeko saiakerek. Beraz, minaren pisua handiegia izan zen, azken finean.



Nik arraunari jada ez diot hainbesteko garrantzirik ematen, baina egia da San Juanen garrantzi handia ematen zaiola

Eta orain zer?

Orain arraunik gabe. Ez da drama. Taldeko askok jaso ditugu beste talde batzuetan arraun egiteko eskaintzak, baina askok ezetz esan dugu psikologikoki oso erreta bukatu genuelako, eta batzuk ondorio apur bat larriagoekin. Azken batean, kirola praktikatzeari utzi diogu gure esku ez dauden arrazoiengatik. Irabazteko lehian jarraitzeari utzi diogu, eta ordainetan egurra jaso genuen salatzeagatik

edo salatzeke moduagatik. Autokritika egiten dugu, eta badakigu ez genuela asmatu, herrian bereziki, gauzak adierazteko moduan, baina argi dago egin behar zela, zeren hemeretziok alde egin dugu, eta ez gara itzuli.

Egoera hobetu da?

Nik arraunari jada ez diot hainbesteko garrantzirik ematen, baina egia da San Juanen garrantzi handia ematen zaiola, eta klubak aurrera jarraitzen du, jarraitu behar duelako. Kategoria txikiko neskak oso emaitza onak lortzen ari dira, zoriontzekoa da. San Juanen kristoren kasta dago, eta beraiek dira oraintxe bertan hori erakusten ari direnak, *chapeau*. Egia da, ordea, guk lortu genuen goi-mailara heltzeko urte asko beharko dituztela. Seniorrei eta jubenilei dagokie orain berriro klubari indar handiagoa ematea. Hobere-na opa diet, eta pozten naiz irabazten dutenean, nola ez bada! Guk sufritu genuena haiek ez sufritzea nahi nuke.

Emakumeak arraunean. Gai zabala da, baina zer aipatuko zenuke?

Eztabaida handia dago. Balore asko nahasten dira. Goi-mailako emakume arraunlariak ditugu, haiek kirola eta errendimendua lehenesten dituzte. Hasiberriak ere badira, haiek esperientziak bilatzen dituzte, taldea. Tartean daudenak ere badira, errendimenduari begira serioago entrenatzen saiatzen dira.

Hasieran gaude. Hamabost urte dira emakumeen traineruak ofizialki ateratzen direla. Oso progresiboki joan da garatzen, lehenengo selekzioka, gero klubetan... Orain klub asko daude, bi liga daude. Hasieratik aritu diren arraunlariak oso argi daukate kirol gogorra dela, eta errendimenduarekin lotuta, seriotasuna behar dela. Irabazten ari diren arraunlariak oso argi daukate zer egin behar den irabazteko. Kontua da besteek, agian, arraunean denbora gehiago aritu izana edo irabazteko grina berezia falta dutela, normala den moduan.

Eta orduan?

Orduan, behar dira, hamabost talde beharrean 50, gizonetan bezala, eta behar haina liga. Azken finean, kontua talde kopurua da, eta honek emango dizun berezko kalitate mailaketa naturala. Ez dago besterik. Eta urteak, eta jendea arraunean, gogor entrenatzen, maila handiko populazioa, bestea hasi berria, ziklo naturalak betetzea, alegia.

Materialaren auzia ere hor dago.

Emakumeok, normalean, gizonen soberakinak hartzen ditugu: traineru onena ez. Ez dut uste inongo klubek erosi duenik traineru bat bereziki neskentzat. Normala da, hasi berria da, eta oso garestia da arrauna. Orduan, ontziak mutilentzat daude eginda. Traineruko mutilak 70 kilo izango ditu, eta neskak, berriz, 63 kilo. Gorpuzkera ere diferentea daukagu, gu baxuagoak gara, berez. Inoiz ez ditugu gizonen denborak lortuko, ez indar faltagatik soilik, baizik eta desabantaila dugulako, gure gorputza ez baita ontzira mutilen pare moldatzen. Gure gorputzei mugitzea dagokien pisua ez da hori. Mutilen azpitik ibiliko gara beti, argi dago. Baina eztabaida badago, traineruak emakumeen pisu eta baldintzetara egokitu ala ez. Oso erraza da: eskubaloian emakumeek baloi txikiagoak dituzte; arraunean zergatik ez?

Zer moduz kirolrik gabeko bizitza?

Uste nuena baino askoz ere hobeto. Bartzelonatik pixka bat estresatuta iritsi nintzen, tesia amaitzear nuela eta, gainera, Bartzelona hamaika urte eta gero uztea ez da erraza. Beraz, arraunak lagundu zidan sozializatzen eta hemen erabilgarri sentitzen. Hiru urte hauetan hor sartuta ibili naiz, nire hementengo betiko lagunekin asko egon gabe, baina arrauna utzi eta gaizki ez, aizu...

Bada bizitzarik arraunetik kanpo ere.

Bai, eta zoragarria da. Beste ikuspuntu bat daukat orain.

Denboraldia hastear da... itzultzeko beharra sentitzen duzu?

Ez.

Ane Arbillaga Etxarri

1986, PASAI DONIBANE



Arnas fisioterapian aditua eta Biomedikuntzan doktorea. Irakaslea da Deustuko Unibertsitatean 2015etik. Eskolak emateaz gain, ikerketa lanak egiten ditu jarduera eta ariketa fisikoaren, biriketako gaitzen eta entrenamenduaren inguruan. Arraunean aritu da Batelerak ontzian azken hiru urteetan.





EKAINEKO DOAKO JARDUERAK

**Ekainako ostirala, larunbata
eta igandeak.**

"BIDAIAZERA GOAZ".
Kids Zone gunean.

Ekainak 21 eta 22a

FORNITE TXAPELKETA
Hype Station® gunean.

Ekainak 10etik 30 arte

ARGAZKI ERAKUSKETA
Gipuzkoako Kirol Egokituen
Federazioaren eskutik.

ETA GAINERA...

Ekainaren 3, 4 eta 5 ean
Cinesa Urbilen sarrera 2,90
eurotan. Promozioaren info
gehiago: www.urbil.es/eu/
lokalen-eskaintzak

Ekainak 3, 4 eta 5
•ZINEMA•
2'90€



urbil.es



Asko eskatzen du, ezta?

Bai, asko kentzen du. Asko eman behar zaio. Nik, egia esan, zorte handia eduki dut. Pila bat baloratzen dut arraunean hain denbora gutxian arituta, talde onenean jarduteko aukera eduki izana. Ez da batere ohikoa, pribilegiatu sentitzen naiz, sekulako taldea topatu nuelako eta talde horrek eraman ninduelako hori guztia bizitzera. Neure ahalegina ere bazen hor, noski. Nire benetako mirespena besteentzako da, urtetan banderarik altxatu ez eta hala ere hor jarraitzen dutenentzat. Txapela kentzeko modukoa iruditzen zait. Horiek dira ondo zaindu behar direnak, mantendu behar direnak. Zeren goraka horiek joango dira, eta beste belaunaldi batzuk ekarriko dituzte.

Gaiz beste eginda... tesia bukatu al zenuen?

Bai, bai. 2016ko abenduaren 20an. Kito. Prozesua nahiko luzea izan zen. Ikerkuntza zentro nahiko potente batean egon nintzen, maila handiko zuzendari batekin, krisia hasi berritan: dirurik ez, jende gutxiago lan bera egiteko... prozesua oso gogorra izan zen. Baina emaitza oso-oso onak jaso ditugu.

Zeri buruzkoa zen?

Jarduera fisikoa eta entrenamendua birketako gaitzak dituzten pazienteetan.

Zer ondorioztatu zenuten?

Gaixo dauden pertsonen nolako ariketa fisikoa eskaintzen zaie? Bada ospitaletako programa bereziak izaten dituzte, adibidez fisioterapeutekin, esfortzu probak egiten dituzte, entrenamenduak prestatu eta gainbegiratzen dizkiete... Guk kalean beren kabuz egiteko entrenamendu me-

todologia eskaini diegu, oso sinplea. Beren jarduera fisikoa hobetzeko parkeak eta oinezkoentzako guneak erabiliko lituzkete. Oso esku-hartze txikia, baina oso zehatza egin dugu, eta lehenengoak izan gara urtebeteko eraginkortasuna mantentzea lortzen.

Eta horretan zelan hasi zinen?

Fisioterapia kirol-lesioekin, traumatologiarekin eta auto istripuen ondoriozko neurologia arazoekin lotzen dugu batik bat. Alor ezezagunagoa da arnas fisioterapia. Biriketako eta bihotzeko gaitzak dituzten pazienteekin egiten dugu lan.

Orain eskolak ematen dituzu Deustuko Unibertsitatean.

Bai, Bartzelonan ere aritu nintzen eskolak ematen. Oso goiz hasi nintzen, egia esan. Egun batetik bestera hasi nintzen han eskolak ematen, 23 urterekin, eta harrezkeroztik ibili naiz. Ikerkuntzan ere ari naiz. Gustura nago, egia esan.

Baduzu pazienterik hemen?

Hona etorri naizenetik pazienteekin ez naiz egon. Noizbehinka, halako gauza bereziren bat egokituz gero, egin izan dut, baina bestela ez. Nahiko nuke, pazienteekin oso ondo pasatzen dut. Oso mundu polita da. Baina hemen arnas fisioterapeuta bezala zeozer garatzeko zaila daukazu, Osakidetzan ez dago departamenturik...

Gustatuko litzaizuke?

Arraunean ari nintzenean ezinezkoa zen, eta orain, arraunik gabe, nahiago dut tar-te pixka bat hartu. Etorkizunean litekeena da, baina auskalo, hainbeste gauza dauzkat egiteke. ●



Isolamendua apurtu

Xabier Gonzalez zuen izena, 28 urte zituen, baina bere izen-abizena ez zen notizia izan apirilean, Zaballako espetxeko ziega batean hil zen arte. Haren senitartekoez telefono dei baten bitartez jakin zuten haren heriotzaren berri. Salhaketa elkarteak salatu zuenez, bere hiru alabek ezin izan zuten aita ikusi barroteen artean pasa zituen bi urte eta hiru hilabeteetan. Hala berean, haren espetxealdiaren azken arloan bere bikotekideari ukatu zioten hura ikusteko eskubidea. Gorpua erraustua izan zen lehenbiziko autopsiaren emaitzak eza-gutu gabe. Xabier Gonzalez zentro penitentsialarietako hildakoen zerrendatako historia izatera pasa da.

Xabier, urtarrilaz gero zerraldo irten den laugarren preso da. Hala ere, oraindik ez dira ez azalpenak eman, ezta inoren ardura aditzera eman. Iragan abenduaren 1etik, 90 pertsonak galdu dute bizia Espainiako Estatuaren kartzelatan. Azken 40 urteetan, 15.000 preso baino gehiago zendu dira askatasuna berreskuratu aurretik. Hamarretik lauk bere buruaz beste egin zuen, edota drogaren kontsumoaren kausaz hil ziren. Problematika 60.000 pertsonaz osatutako kolektiboari dagokio; kopurua Europako Estatuaren rankinean laugarren postuan dago.

Espainiako Konstituzioaren 25. artikulua dioenez, "askatasunaren zigor pribatuak eta segurtasun neurriak presoak gizarteratzerara eta heziketa berritzaera zu-

Torturen amaiera eta eritasun sendaezina duten pertsonen askapena dira presoek kolektiboaren helburua. Horiek ageri dira beraiek osatu duten aldarrikapen taulako hamalau puntuen artean, hainbat espetxetako hogeita hamar giltzaperatuek egin

zenduta behar dira". Agindu hori derrigorrez bete beharko litzateke, askatasun eta eskubideen atalean daude. Alabaina, antza, estatuak bere babespean dituen pertsonak zaintzerako orduan, karta eskuzabal sakrosantuaren defendatzaileek albo batera begiratzen dute.

Torturaren Prebentziorako Europar Batzordeak edota Europako Kontseiluaren txostenak –giza-eskubideetan erakunde kontinental gorena– behin eta berriz argi adierazi duenez, "Espainiako espetxeetan tortura, tratu txarrak eta eraso doilorrak" izaten dira. 2004tik 2016ra bitartean, Torturaren Prebentziorako Koordinakundeak tratu horiek pairatu dituzten 961 presoek egorak aztertu eta



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO
KAZETARIA

dokumentatu zituen. Beste kasu zaurgarriak ere salatu zituen, hala nola, eritasun kroniko eta sendaezina duten pertsonen hirugarren gradua ukatu izana, espetxe arautegian dagoen neurria. Jarrera hori ohikoa eta egunerokoa da, ordea.

Hain ziur ere, torturen amaiera eta eritasun sendaezina duten pertsonen askapena dira presoek kolektiboaren lehen helburua. Horiek ageri dira beraiek osatu duten aldarrikapen taulako hamalau puntuen artean, Espainiako Estatuak hainbat espetxetako hogeita hamar giltzaperatuek egin. Talde horrek duela hiru urte borroka dei eraginkorra proposatu zuen barrualdetik. Hainbat ekimen gauzatu dute harrezkero, beren eskakizunak lortu aldera. Azkena, maiatzaren 1etik 15era egin zuten gose greba bateratua.

Gaur gaukoz, Altsasuko auziaren eta Urriaren 1eko Erreferendumaren ondorioak bizi ditugun garaiotan, espetxeak disidentzia politikoaren aurkako errepresio guneak dira. Hartara, gure begirada zabaldu beharko genuke eta estatuak zigortzeko darabilen eredu orokorra auzitan jarri. Ez al dira preso politikoak ere gizarteratik kanpo utzi ditugun sektoreak? Hau da, beren ziegetan ahanzturara isolatzen eta kondenatzen dituzten pertsonak. Xabier Gonzalezek ez du egunsentia berriz ikusiko. Haatik, bere historiaren eta haren antzekoen inguruan ezarria den isiltasuna apurtzea gure esku dago. Kontatzen ez ditugulako izateari laga dioten bizipen latzak. ●

Kolaborazionismoa



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Modou Khadim Sow dauka izena. 50 urte. Euskal herritarra zen, Ribaforadako auzokidea. Maiztzerara arte, behintzat. Harik eta espainiar poliziak, alkatearen gezur eta engainua tarteko, hartu eta Senegalera bota arte.

Udala laster desenkusatu zen ohar baten bitartez, “egunero euren auzokideen ongizatearen alde lan egiten dutela” esanik. Denok geure baitan bada-kiguna azalarazi zuen: Modou ez zen *benetako* herrikidea, ez zen auzokide-*auzokidea*. Areago, udalarentzat izenik ere ez dauka, “senegaldar bat” baino ez da euren azalpenetan. Beste beltz bat besterik ez.

Inork ez dio alkate jaunari eskatu protesta ekintzarik egiteko, udaleko sarrreran kateatzeko edo bere burua *bonzo* erara erretzeko. Bere papera ez zen hori, baizik eta bere herrikidea babes-tea, bere egoeraz kezkatzea eta laguntza eskaintzea. Edo, hori berarentzat gehiegizkoa balitz, edozein auzokide zuriren kasuan seguruenik egingo zukeen berbera egitea: “Zeuek topatu” erantzun. Horren orde, ekintza nardagarria aukeratu zuen *motu proprio*. Eta horixe da aurpegiratzen zaiona, kolaborazionismo horren aktiboa jokatu duen lehenbiziko alkatea izatea eta he-



ANTTON OLARIAGA

rritar guztiek (baita zuriek ere) instituzio gertuenarekin daukaten konfiantza apurtzea. Hori marka hori!

“Kolaborazionismo” esan eta Vichy erregimena datorkigu gogora ezinbestean. Pétainek irratiz alemaniarrekin kolaboratzera dei egin zueneko diskurtso-tik ei datorkigu terminoa. Azkenaldion sasoi hura berrirakurtzen ari dira Frantziako Errepublikan, De Gaullek hasitako mitoa barne: frantziarrek eta soilik frantziarrek salbatu zuten Frantzia; kolaborazionistak “miserable apur batzuk” baino ez ziren izan; benetako Frantziak ez zuen hartan zerikusirik izan. Horrela, benetako frantsesak lasai egon ahal izan ziren ahanztura kolektiboaren babesean, lehenago ere egon ziren bezala, jo puntuan juduak, ijitoak, komunistak edota errepublikar espainolak zeuden bitartean, hau da, auzokide edo herritar osoak ez ziren haiek.

Sow jaunak aurrekariak dituela azaldu du udalak. Zehaztu barik. Ogi bat lapurtzetik masa hiltzailea izaterainoko aukera guztiak mahai gainean. Baina FBI edo CIArekin kolaboratzen ari den tele-sailetako gizon ausartaren irudia mila zatitan kraskatu da leporatzen zaiona salmenta ilegala dela jakitean. Ekintza gutziz arriskutsua eta pertsona bat bere

etxetik botatzeko arrazoi nahikoa, antza. Ikustekoa izango litzateke idatzizko udal zitazio bat, hau da, dokumentu ofiziala izan litekeen zerbait, faltsukeriaz erabiltzeak ea aurrekariak ekar lezakeen.

Legea bete beharra ditzosozko mantra sakrosantua erabili du udalak. Gezurra. Ezein legek ez du horretara derrigortzen. Baina legeaz ari garela, gogoratuko dugu Estrasburgok Espainiako Estatua kondenatua duela aurrekariak arrazoi bakartzat erabiltzeagatik inor kanporatzerakoan. Areago, Europako Justizia Epaitegiak Tuterako bizilagun baten kanporaketa eten zuen arrazoi berberengatik. Modouk defentsa esku-biderik ere ez du izan. Ez du axola, beste beltz bat besterik ez da.

Helduko da eguna Europak migranteen genozidioaren eta eskubide urraketa masiboaren berrirakurketa egingo duena. Euskal Herrian ere geure partea egin beharko dugu. Ordurako oso berandu izango da, dagoeneko berandu izan badelako. Batek baino gehiagok goi karguetan eta urrun dauden miserable gutxi batzuk seinalatuko ditu, benetako herritarrak lasai egon daitezten. Izkiriatu-rik gera dadin ordukotz: miserableak baliteke, baina ez horren gutxi eta ez horren urrun. ●



KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Pentsa arduradunak

Euskadi Irratiko *Faktoria* magazinari esker jakin ahal izan genuen Warren Buffett AEBetako enpresari guztiahaldunak ze kezka darabilen buruan: “Estatu Batuetan orain hogeitun urte, prentsa arduradun bakoitzeko bi kazetari ari ziren lanean; gaur egun, ordea, kazetari bakoitzeko sei prentsa arduradun daude”.

Prentsa arduraduna, eskuarki, erakunde bati buruzko informazioa bideratzeko ardura duen pertsona da. Hau da, ordaintzen dion erakundeari gizarteratzea komeni zaion informazioa, helburuen interesen galbahetik pasatu ostean, eta komeni den dosietan neurtu eta gero, komeni den unean zabaltzea –sarri interes ekonomiko-politiko izugarriak izaten dira tartean–. Horrela, erakundeari komeni zaion bezala, kazetariak, inertiak lagunduta, irents dezan segidan bere komunikabidean zabalduko duen mezua. “Komeni” gehiegitxo gauza onerako.

Erakundeez aritu zen Warren Buffett, baina enpresei nahiz talde politikoei buruz ere ari zitekeen. Horiek gutxi ez, eta, aspaldion, kazetarion eguneroko lanean, ohikoak bihurtu dira galderarik gabeko prentsaurrekoak. Galderarik gabe? Hori ez da prentsa agerraldia, hori mitina da!

Beraz, kazetariari norabide bakarreko informazio mugatua heltzen zaio. Kazetari finak badira, baina errazkerian

erortzen garenok ere tropelka ederra osatzen dugu.

Esku pilota profesionalaren esparruan nagusi diren ASPE eta BAIKO enpresen arteko lehian, polita ari da gertatzen: txapelketa mordoa eman dute lehen ASEGARCEko eta orain BAIKOk pilotariak txapel alerik irabazi gabe hiru txapelketa nagusietan.

Ondorioz, jakin-minaren arrak barrena jaten dit egoera horretara heltzeko zer gertatu den igarri ezinik. Bolada txarraren ondorioa izan daiteke, besterik gabe; plangintza desegokiaren ondorioa, akaso; giro nahasia, agian? Edo sasoiko pilotariak azkartxo bazterreratu zituzten, eta horien ordeztutako gazteek denbora beharko dute aurrekoen mailara heltzeko? Agian, ibili-ibili eginda, zalantzaren urak eraginda, lepogaineko errota lan gehiegi egiten ari zait.

Edo, zergatik ez? Beharbada, ASPEn lan ikaragarria egin dute eta orain lan horren fruituak jasotzeko unea heldu zaie. Auskalo!

Dena den, kuriositatea piztu bazai-zue, hurbildu zuzenean pilotariengana. Bestela, prentsa arduradunak “bere mutilekin” zubi-lana egiterako zure zalantzak herdoildurik egon daitezke. Azken finean, ez al daude horretarako? “Pentsa arduradunak”, zer prentsatu behar dugun esaten diguten prentsa arduradunak. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Ohiturez

Aurreikusten erraza naiz. Elizondon nagoen ala ez jakin nahi baduzu, esne makinaren ondoan begiratu ea nire autoa dagoen. Hara joateko tunelak alde batera utzi eta portutik joateko ohitura dut *Cigarettes after sex* entzuten. Katakakera joaten baldin banaiz beti eskatzen dut kafesnea eta *brownia*, eta zuzenean igotzen ditut eskailerak poesia sailera joateko. *Nordés* gin tonica ateratzen didate tabernan zuzenean marka galdetu gabe, baina gehiago maite dut txanpain frantsesa, eta oraindik Kotto Alzuguren gogoratzeko edaten dut,

eta ez dakit negar edo barre egiten dudan orduan; irri, seguruena, ligatzen zuzenean ukatzeko zuen irri murriz berberarekin. Donostiara beti noa bide luzeenetik, Joxemi Bidadorrekin handik joaten nintzelako eta nire modua delako hura akordura ekartzeko. Rufik badaki goizeko kafea ateratzen didanean belarritakoekin eta amerikarekin baldin banao *saraoa* dudala arratsaldean. Konturatzen ari naiz geroz eta ohitura gehiago dudala pentsatzeko, gutxiago pentsarazten didatelako eta gehiago sentiarazten, kontrakoa irudi dezakeen arren. ●

Alferrikakoaren konkistak



OIER GUILLAN
ANTZERKIGILEA

La *conquista de lo inutil* antzezlan ikusi berri dut, Irunen, egileen jaio-terrian. Atarian aktore beterano batekin solasean konpainiaz: harrigarria dela hogeita hamar urtetik gorako ibilbidea izanik nolabait baztertuak egotea, nahiz eta kritika onak eta nazioarteko aitortpena izan, nahiz eta kultuzko taldea izan bertakoentzat. “Noiztik ez dute aktuatu, adibidez, Donostian?”.

Gogoan dut oraingo L' Alakran taldearen hastapena zen Legaleon T.-ren *Tombola Lear* ikusi nuela 1998an, Antzoki Zaharrean, orduko antzerki jaialdian. Nola eragin zidan antzezlari hark, nola markatu zituen oholtza gainean gerora emango nituen urratsak. “Zeinen urrun dagoen emanaldi hura, Donostia hura”, eta solasean jarraitu du lagunak, “Euskal Herrian arlo publikoan sortu diren taifa erreinu batzuekin, kulturaren arloan kultura bultzatzea da gutxien inporta duena. Sanoena litzateke programatzaile lanpostu publikoak eta kultur proiektuak bost urtean behin berrikustea, antzokietako ildoak etengabe aktualizatu behar izatea eta antzerki

Baina ez, gaixotasuna da nagusi, eta izurrite bat da:

"Batzuk ez dira isiltzen, baina herri honetako kultur arloan hori ordaindu egiten da". Isilik geratu naiz ni ere, triste, nekaturik, besteak beste aurtengo Donostia Sariko afera gogoan

konpainia eta belaunaldi berrien errealtater egokitzera behartzea”. Baina ez, gaixotasuna da nagusi, eta izurrite bat da: “Batzuk ez dira isiltzen, baina herri honetako kultur arloan hori ordaindu egiten da”. Isilik geratu naiz ni ere, triste, nekaturik, besteak beste aurtengo Donostia Sariko afera gogoan: hiru aktorek lan gatazka salatu dute, elebitan estreinatzen diren bertsoetan euskarazkoaren prekarizazioa. Gatazkako bi

aldeak entzun eta egon zaitezke batekin zein bestearekin zalantza dantzan, zein neurritan zauden ados ala ez, zein neurritan duzun aski informazio, baina niri zer edo zer argi geratu zitzaidan: jende askoren, gehiegiren, beldurra. Azken hamarkadetan diru laguntza larriak aparatu duten eragileei beldurra, ez ote den “normalitatea” urratuko, ez ote zaituzten hitz eginez gero programatuko edo lanerako deituko.

Teatroaren egoeraz mintzo zen *La conquista de lo inútil* umorez, egoerari aurre egiteko pasioa eta garra aldarrikatuz: zaila da izurrite bati aurre egitea, agian ahalegin handiegia da pertsona bakar batentzat, programatzaile, konpainia edo kultur elkarte batentzat, antzerkia industria irizpideen gainetik jartzeko borondate partekatu batentzat. *Respect* kultur industriari eta *blablabla* –benetan uste dut hor badela sistemaren barrutik gauzak beste modu batean egiten saiatzen denik–, baina ostia, denak ez du balio, ezin du balio izan! Agian beste izurrite mota batzuk asmatzea da irtenbide bakarra. ●

Gazteola*
Haur eta Gazteak

Bilbo erdian!

**Uda euskaraz
haur eta gazteentzat**
info + www.gazteola.eus

berria denda

Osatu udaberriko saskia Euskal Herriko produktuekin

AMEZTOI TXAKOLINDEGIA



36 € 6 botilako kutxa

K5 ARGIÑANO TXAKOLINDEGIA

K PILOTA txakolina



45 € 6 botilako kutxa

LEZAUN ARDO EKOLOGIKOAK



2018. urteko Lezaun 0,0 sulfito
(2017ko Zilarrezko Ekoardoa - Erioxa)

28 € 6 botilako kutxa

2018. urteko
Lezaun Gazaga
(Nafarroako sor-markako haritz ardo onenaren saria, 2017)

40 € 6 botilako kutxa



ITURRI KONTSERBAK



ZAINZURIAK

Zainzuri estra lodiak,
13-16 ale

24 € 3 poto

PEDRO LUIS KONTSERBAK

ZAINZURIAK

Zainzuri lodiak, 8-12 ale

38 € 6 poto



PEDRO LUIS KONTSERBAK

Gourmet KALABAZA krema



15 € 6 poto

PAGOA GARAGARDO SORTA

27 € 12 botilako kutxa



- 3 Stout (beltza)
- 3 Pilsner (horia)
- 3 Red ale (gorria)
- 3 IPA

ALFAR OLIOA

Oliba olio
Birjina estra



43 € 6 botilako kutxa

SOLAGÜEN ARDOAK

2018. Solagüen beratzte KARBONIKOA

30 € 6 botilako kutxa



2018. Solagüen ZURIA

30 € 6 botilako kutxa



Eskariak egiteko azken eguna
maiatzaren 31

**Osatu
zure saskia!**

Bidalketa
gastuak
DOAN

(0034) 943-30 43 45 • Berria.eus/berrialaguna/denda/

JAIZKIBEL MENDIAN TESTULIBURUETAN BAINO ARGIAGO

Hondarribiko ikasleek ametza zuhaitzaren haziak ernaltzen lagundu eta ondoren Jaizkibelen landatu dituzte, bertako basoa pixkanaka berreskuratu dadin; mendiaren hiru dimentsioko maketa ikusgarria ere osatu dute; eta Jaizkibelen kokatutako hirigintza plan bat asmatu dute irakasleek, bertako ekosistemez eta mehatxuez gogoetatu dezaten gazteek. Herriko mendia izan dute ikasketarako oinarri eta ardatz.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ
 DANI BLANCO

EZKURRAK LANDATZEN

Jaizkibelgo basozainaren argibideak entzunda, zuhaixkak landatzeari ekin diote ikasle, irakasle eta basozainek. Ezkerreko argazkian: Amaiur Barron eta Jon Arrieta ikasleak.



Otsaila bukaera da eta *Ametzu Jaizkibel* egitasmoari amaiera ederra eman diote ikasleek: ernaldutako ezkurak landatu dituzte mendian, etorkizunean zuhaitz sendo eta handi bihurtu daitezzen. Zehazki, ametzaren ezkurra da landatu dutena. Hondarribiko Talaia institututik oinez joan dira, landaketarako prest dagoen 15 x 15 metroko soiluneraino. Zientzia Aplikatuetakoko hamabi ikasle dira, gero ziuurrenik erdi-mailako moduluren batera edo Lanbide Heziketara joango diren ikasleak, maiz euren burua ikasle txartzat dutenak. Beraientzat ardura eta motibazio estra izan nahi du egitasmoak. “Hau *gozada*” diote, aitzurra gogor astinduz.

Jaizkibelgo eta Aiako Harrietako basozainak izan dituzte laguntzaile. 70 ametz landatu dituzte, Iker Luarizaierdi Jaizkibelgo basozainaren argibideak jarraituz: “Ez ditugu lerrotan landatu-

ko, nahi dugulako baso naturala izatea, eta nahastuta sartuko ditugu, nahieran”. Lur-azala garbitu, orbela kendu, aitzurrarekin zuloa egin, lurra harrotu, landarea egoki ezarri eta lurraz ongi estali behar dute, landarea finkatzeko.

Gizakiak eskua sartu ez balu, Jaizkibelen %89ak ametz izan beharko luke, baina gaur egun eremuaren %8a baino ez da

“Dagoeneko sustraia duten zuhaixka txikiak landatuko ditugu, hobeto erroztzeko; denak ez dira aurrera aterako, baina hori lehia naturala da”.

Aranzadi Elkarteko Anais Mitxelena ere bertan da. Azaldu du gizakiak eskua

sartu ez balu Jaizkibelen %89ak ametz izan beharko lukeela baina gaur egun eremuaren %8a baino ez dutela hartzen ametzek. Egund, Jaizkibelen %12 bakarrik da basoa eta beste %25 landaketak: batik bat pinua eta gaztaina landatu izan dira, monolaborantza sustatuz –apenas dagoen beste zuhaitz motarik-. Ikasleek klasean ikusi dituzte basoaren eta landaketaren arteko ezberdintasunak. Ustiapena –eta etekin ekonomiko– helburu izan ohi duten landatutako zuhaitzen aldean, baso naturalak hobeak dira bertako flora eta faunarentzat, baita klima aldaketari aurre egiteko ere. Ezkur landaketari esker, ikasleek badakite Jaizkibelgo ametzaren basoa berreskuratzen lagunduko dutela, gizakiaren esku-harzte beti ez baita kalterako.

Joan aurretik, ametz zuhaixketako bat gorde dute, ikastetxeko lurretan landatzeko.





TALAIA



HIRU DIMENTSIOAN. Metro bateko luzera eta 75 zentimetro zabalera duen 3D maketa burutzea abentura izan da denentzat.



TXANGOA. Apirila bukaeran gerturatu ziren mendira, bertako espezieak eta mehatxuak aztertu eta asmatutako hirigintza planaren eragina zein izango zatekeen ondorioztatzeko.

NOLA ZAINDU EZKURRA, ERNALDU DADIN?

Ameztu Jaizkibel ekimena hilabete batzuk lehenago abiatu zuten ikasleek, urrian: ezkur bila joan ziren Jaizkibelera. Orduan ere, Luarizaierdi basozaina izan zuten gidari, eta bere ofizioaren nondik norakoez, Jaizkibelgo animalia eta landareez, mendia babestuta egotearen arrazoez, ametzen eta haritzen arteko ezberdintasunez... aritu zitzairen. Bertatik bertara duten basoa ezagutzeko eta laginketa bat nola egin ikasteko balio izan zien ikasleei. Hurrengo hilabeteetan, bildutako ezkurak ikastetxean ernald

"Oporretan haziak zaintzeko ez zela inor egongo eta kezkatuta zeuden ikasleak. Azkenean, Teknologiako ikasgaiari negutegi txiki bat muntatu zuten, oporrek iraun bitartean lorontziak bertan sartzeko"

IZASKUN ZENOZ, IRAKASLEA

zituzten, astean zehar ezkurak behar bezala bustiz, arrak ateraz gero garbituz, lehortzen ziren haziak botaz... Baina ametzaren kasuan ezkur urte txarra izan da, gutxi eta kalitate txarrekoak ziren, eta erabaki zuten Jaizkibelera bueltatzea haritzaren ezkurak biltzera. Ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza oso-ko ikasleengana (12-16 urte) zabaldu zuten hazien zaintza eta segimendua egiteko ardura, eta metodo berri bati ekin zioten: hondar hezean ezkurra sartu eta frigorifikoa 4 gradutan mantentzea, negua imitatuz. Horrela bai, ezkurak ernaltzea eta sustraia botatzea lortu zuten.

Ikasleen artean interesa eta inplikazioa nabaria izan dela dio Izaskun Zenoz irakasleak, behin proiektuarekiko lotura sortzen denean, balioa eta zentzua ikusten diotenean, konpromisoa datorrela segidan: "Neguko oporretan haziak zaintzeko ez zela inor egongo eta kezkatuta zeuden ikasleak, etxera eramateko prest ere agertu ziren. Azkenean, negutegia egitea otu zitzairen, zirriborroa landu eta Teknologiako ikasgaiari negutegi txiki bat muntatu zuten, oporrak iraun bitartean lorontziak bertan sartzeko. Plastikoa zulo batzuk eginda, euri ura jasotzen zuten haziak, itotzeko arriskurik gabe. Bi astetan egindako negutegi arrunta zen, baina helburua lortzeko nahikoa, eta borondatez eta ilusioz eraikia".

Gipuzkoako Foru Aldundiak Urnietan duen haztegia eraman zituzten ernaldutako ezkurak, hurrengo urtean basozainek landatu ditzaten. Trukean, iaz bildutako eta haztegian ernaldutako ametzaren ezkurak jaso zituzten ikasleek, Jaizkibelen otsailean landatu zituztenak.

Gustuko esperientzia izan dela diote Jon Arrieta eta Amaia Barron ikasleek: "Ikasi dugu hazia nola mantendu eta zaindu, frustrazio momentuak ere izan ditugu, pentsatzen genuelako zentzat eta ur gehiago bota hobe izango zela, baina ez da hain sinplea, alternatibak bilatu behar izan ditugu...". Behin eskola bukatuta itzuliko al dira, landaturiko zuhaitzak bisitatzen? "Jakina!", erantzun digute.

HIRU DIMENSIOTAN INPRIMATZEN

Teknologia ikasgaiarako ere aitzakia aproposa eman dio Jaizkibelet Talaia ikastetxeari: mendiaren maketa osatu dute hiru dimentsioko inprimatzaileekin. Iraitz Zuazabeitia eta Eder Valladares irakasleek gidatuta, Gipuzkoako Diputazioak puntu bakoitzaren geoposizioa duela aprobeztatu eta informazio hori guztia interpretatzen, datuak prozesatzen dituen softwarea erabiltzen, bolumena ematen, hiru dimentsiotan inprimatzen, maketa muntatzen... ikasi dute gazteek. "Bestelako gaiak lantzeko ere balio izan digu, adibidez zergatik sortzen den olatua gune jakin batean, zergatik dagoen kasinoa hemen eta ez hor...", dio Valladaresek. Datuak behar bezala sartzeko jakitea, inprimatzailea erabiltzen asmatzea eta lauki-sare guztiak osatzea ordu askotako lan konplexua izan da.

Metro bateko luzera eta 75 zentimetroko zabalera duen maketa burutzea abentura izan da denentzat. "Ez dut uste Jaizkibelgo tamaina honetako maketa askorik egongo denik eta guretzat ere ikasketa prozesu handia izan da halako inprimatzaile batekin aritzea, mundu berri bat".

JATETXEA, ETXEBIZITZAK ETA KAIA JAIZKIBELAN

Izaskun Zenozekin batera, Amaia Agirre, Maier Gereka eta Iñaki Sanz-Azkue aritu dira Biologiako irakasle. Guztien artean, beti ere Jaizkibel ardatz hartuta, unitate didaktiko bana osatu dute DBH1 (11-12 urte) eta DBH4 (15-16) mailetako ikasleentzat. Helburua, bertako ekosistemak, fauna eta flora ezagutzeko, eta ezagutza horrek bestelako lotura batzuk sortzea, Jaizkibel eta oro har natura kontserbatzeko beharrezko inguruan. Unitate didaktikoek arazo erreal bat izan dute abiapuntu: imajinatu Jaizkibelgo kostal-

Imajinatu Jaizkibelgo kostaldean etxebizitzak egin nahi dituela promotore pribatu batek eta administrazioak biologoen iritzia eskatu duela. Bada, ikasleek jokatu dute biologo rola

dean (Justiz eremuan) jatetxea, etxebizitza batzuk, barkuentzako kai txiki bat, bertara iristeko errepidea, ura iristeko kanalizazioa eta haurrentzako parkea egin nahi duela promotore pribatu batek eta administrazioak biologoen iritzia eskatu duela, baietz ala ezetz erabakitzeko. Bada, ikasleek jokatu dute biologo rola. Prozesua dinamika ugarietan oinarritu da: hala nola, taldetan informazioa bilatzea, elkarri aurkeztea, Hondarribiko animalia eta landareen *Kapen* karta-jokoa baliatzea eta Jaizkibelera bertara txangoa egitea.

Apirila bukaeran gerturatu ziren mendira, hain juxtu ariketako promotore pribatuak eraiki nahi zituen etxebizitza, jatetxe eta abarren eremuetara. Ereku horietan sei ekosistema zapaldu zituzten (urbanoa, landa-eremua, erreka, basoa, zingira, itsaslabarra), bertako espezieak eta mehatxuak aztertu eta egi-

tasmo pribatuaren eragina zein izango zatekeen ondorioztatuzko. 400 ikasle, bi txandatan, eta Aranzadi elkarteak bidelagun.

Gogoeta kolektiboak eman dio amaiera unitate didaktikoari: ikasleek ez dute uste promotorearen egitasmoa gauzatu beharko litzatekeenik, sekulako kaltea eragingo lukeelako. Eta zein alternatiba emango diote orduan administrazioari? Gazteek proposatu dute etxebizitzak egiteko benetako beharra baldin badago, eremu urbanoan egin beharko liratekeela.

Azkenik, unitate didaktikoaren arrakasta ebaluatu dute unibertsitateko bi irakasle: hasi aurretik testa pasa zieten ikasleei (zer da bioaniztasuna, zer dakizu gune babestuez, zein espezie bizi dira ekosistema jakin honetan, zer jaten dute halako edo bestelako espezieek, Jaizkibel ongi kontserbatuta dagoela uste al duzu...) eta test bera bete zuten ondoren. Nabarmena izan da aldea, onerako, barneraturiko kontzeptu eta edukietan, inguruaren ezagutzan, eta baita bioaniztasunarekiko eta naturarekiko ikasleek hasieran eta bukaeran erakutsi duten interes eta jarreraren ere.

IKASGELATIK PLAZARA

Maiatza bukaeran borobildu dute ikasurte osoko lana; herriari irekitako erakusketa paratu dute Hondarribian, astebetez: ikusgai izan dituzte hiru dimentsioko maketa, *Ameztu Jaizkibel* proiektuari buruzko informazioa, poster eta argazkiak bertako fauna, flora eta ekosistemak irudikatuz, egindako guztia laburbiltzen duen bideoa... Eta erakusketatik gertu, ikasleen benetako altxorra, eskolako mugak gainditzen dituen hezigune natural bezain paregabea: Jaizkibel mendia. ●



Mintzalaguna egitasmoa

7.000 euskaldun 1.000 arnasgunetan

Egun berezia da ekainaren 1a mintzalagunentzat, Mintza Eguna ospatuko baitute Lapuebla de Labarkan. Euskara praktikatzeko 150 herritan eta eskualdetan taldeka eta astero biltzen dira milaka herritar. Ekainaren 1ean elkar ezagutzeko eta mintzalagunen komunitatea trinkotzeko aukera izango dute.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE
 TOPAGUNEA

Ricardo Noriega Muñozek ikasturte bat egin du Hondarribiko mintzalagunetan eta poz-pez dago. Lauz-pabost urte daramatza euskara ikasten euskaltegian, eta iaz mintzalagun egitasmoa probatzea pentsatu zuen. Aukera paregabea da irundarrarentzat, kalean euskara ezkutuan gelditzen dela iruditzen baitzaio. Lotsa kentzeko balio izan dio taldean bildu eta euskaraz aritzeak, oraindik hanka-sartze asko egiten dituela uste baitu. Astean behin biltzen dira eta whatsapppe erabakitzen dute non eta zertarako gelditu: tabernan egonean, pintxo potea egin...

Bere moduko jendea ezagutu du taldean eta kalean topo egin izan du berarekin eta euskarari eutsi diote. Mintzalagunek asteroko juntadizoaz gain, bestelako ekintzak egiteko aukera izaten dute. Noriegak irakurri zuen Hondarribian Blagan euskara elkartearen eskutik mendira joaten zirela. Hiru bat aldiz joan dira alaba eta biak. Alabak aitari esaten omen dio “patetiko” egiten duela euskaraz, baina aitak alabaren mendizaletasuna baliatuz mendira joan eta taldean euskaraz egiteko aukera baliatu du.

Hurrengo ikasturtean mintzalagunetan berriz izena emango du, ondo sentitzen delako taldean eta “gure hizkuntza maite duten pertsonak direlako kideak”.

B2 mailako euskara azterketa egin bezperetan hitz egin dugu berarekin. Autobus gidaria da Irunen eta bezeroei zerbitzu ona emateko, euskaraz aritu behar duela uste du. Gaur ez bada bihar, titulua ere beharko duela uste du. Euskaraldian parte hartu zuen eta orduz geroztik berririprest txapa jarrita dabil. Bezeroekin eta lankide batzuekin euskaraz egiten du, badakite autobus gidariak euskaraz egin nahi duela.

BASTIDAN, HAURRAK MUSIKA ESKOLAN DIREN BITARTEAN...

Iratxe Uriarte Galdos Bilboko Santutxu auzokoa da eta Bastidan bizi da. Bastidako mintzalagun taldean dabil eta galdetu diogu ea bidelaguna –euskaraz ondo moldatu eta taldekideei laguntzen dietenak– ala bidelaria –euskara praktikatzeko daude taldean– den. Arrastorik ere ez dauka, zein rol betetzen duen. Hala, konturatu gara uste ez genuen moduko taldeak ere osatzen direla eus-



kara praktikatzeko. Uriarteren taldean ez dago bidelagunik eta bidelaririk, denak euskaraz egiteko inolako arazorik ez daukatena dira. Taldeko kideen helburua ederki dakiten hizkuntzan, tarte batez bada ere, aritzea da. Uriartek seme-alabekin eta bikotekidearekin euskaraz egiten du, baina Bastidan gainerako eremuetan euskaraz egiteko oso aukera gutxi duela dio: “Euskaraz egiten duen jende gutxi dago eta ia beti erdaldunen bat egokitzen da, beraz ez dugu euskaraz egiten”.

Talde berezia da eta modu berezian sortu zen. Mintzalaguneko arduradunak ikastolako irakasle bat zirikatu zuen taldearen ardura hartzeko eta ikastola inguruko hainbat lagun hasi ziren biltzen; beti kultur etxeko tabernan elkartzen dira, han baitago musika eskola eta mintzalagunetan diren kideek haurrak musika eskolan dauden tarte baliatzen dute euskaraz hitz egiteko. Uriartek ez du uste taldea biltzeak ingurukoengan eragin handirik duenik: “Ikastolako irakaslea ezaguna da eta gu ikusten gaituztenean pentsatuko dute ikastolako zerbaitengatik gaudela elkarrekin”. Bas-



AURTEN LAPUEBLA DE LABARKAN. Euskaltzaleen Topagunearekin batera bertako Udala, Arabako Errioxako kuadrilla, mintzalagun egitasmoak eta zenbait eragilek antolatu dute Mintza Eguna 2019. Iaz, argazkian ikus daitekeen moduan, Hondarribian egin zuten. Euskal Herrian mintzalagun taldeetan ari diren kideen %66 emakumeak dira eta batez besteko adina 46 urtekoa da.

tidan, euskara jakin arren gutxi hitz egiten dutela uste du Uriartek. Berak kezka gehien hurrekin dauka. Haiek ere gaztelaniaz egiten dute ikastolan eta umeen artean. Gurasoak elkarrekin euskaraz hitz egiten entzuteak zerbitzatarako balioko diela espero du bilbotarrak.

EZ DIRA 25 URTE ALFERRIK IGARO

Duela 25 urte Donostian abian jarri zutenetik, egitasmoak hasierako helburua mantentzen du, baina beste batzuk ere gehitu zaizkio bidean. Euskaltegietan euskara ikasten ari ziren ikasleentzat sortu ziren herrietan taldeak, euskaraz hitz egiteko aukera izan zezaten. Gaur egun mintzalagun taldeetako kide asko ez dira euskaltegiko ikasleak. Arrazoi oso desberdinak tarteko ematen dute izena herriko edo eskualdeko taldeetan: euskara herdoilduta zeukaten aiton-amonak dira batzuk, bilobak izan dituztenean euskara berreskuratutako behar dutela erabaki dutenak; beste batzuk bere garaian euskaltegian ibili ziren eta hizkuntza erabiltzen ahaztuko zaien beldurrez bildu dira taldera; atzerrian ibili eta etxera itzuli direnak ere badira.

Hasierako urtetako helburu hartatik bestelako xedeak azaldu dizkigu Maite Agirre Topaguneko Mintzapraktika sailako koordinatzaileak: "Mintzalagunak euskara ikasten ari den ikasle horri hizkuntza erabiltzen laguntzen dio, eta era berean, haiei laguntzen ari den euskaldunak bere nahia asetzen du ondokoei euskara praktikatzeko lagunduta. Helburu pertsonal horiek baino gehiago da ordea mintzalaguna. Aste-oro tabernan taldea elkartzeko inguruan eragiten du. Adibide xume bat: taldeko kideek zerbitzariari euskaraz egingo diote". Urteen poderioz, taldeok beste helburu bat betetzen ari direla konturatu dira eta helburu hori betetzeko baliabideak jartzen dituzte antolatzaileek. Alegia, taldetik kanpo euskaraz egitea kosta egiten zaie, eta azken urteotan taldeak berak bideak irekitzen dizkie hala egitea lortu dezaten. Asmoa taldetik kanpo, egunerokoan pausoa ematea da. Esate baterako, antzerkira edo zinemara joaten dira elkarrekin, ziurrik bere kabuz egingo ez luketena. Hala dio Agirrek: "Azken batean bidelagunak beste taldetik atera eta eguneroko bizitzan euskaraz egiteko jautzia egiten diete, batzuetan beraien euskarazko harre-

man sareetara hurbiltzen laguntzen diete". Antzerkia, zinema, pintxo potea, mendi irteera... gustuko edozein plan izango da baliagarria taldeko erotasunetik eguneroko bizitzara jauzi egiteko.

Mintzalaguna taldeei hainbat adar sortu zaizkie mende laurdeneko ibilbidean. Gaur egun gurasolagun, hikalagun eta euskalkilagun taldeak ere badaude. Hainbat tokitan hilero mendira joateko aukera ere badago. Gaztetxoentzat, berriz, mintzakuadrillak dituzte.

ELKAR EZAGUTZEKO IRRIKA


Herriko taldean parte hartzeak komunitate sentsazioa ematen die mintzalagunei, baina askori beste herrietako kideak ezagutzeko gogoia pizten zitzaion, haiek bezala euskara praktikatzeko ari ziren lagunak ezagutu nahi zituzten. Nahi horren harira eta hiztun komunitatea Euskal Herrira zabaltzeko asmoz hasi ziren egiten Mintza Eguna 2006an. Ondoren etorri ziren sagardotegi garaiko irteerak, eta iaz lehenengo aldiz Durangoko Azokara joan ziren. Euskal Herriko zazpi mila mintzalagunek badituzte euskaraz airtzeko gune txiki eta ez hain txikiak. ●

Gerra iruzurra da

Connecticut (AEB), 1931ko abuztuaren 21a. Smedley Darlington Butler (1881-1940) marineen maior jenerala gonbidatu zuten hiriko Amerikar Legioaren egoitzara hitzaldi bat eman zezan. Butler AEBetako armadako militar kondekoratuena zen, erretiratu berria, eta horregatik entzuleak harri eta zur utzi zituzten haren lehen hitzek.

“Gerra iruzurra da, beti izan da” hasi zen Butler. Eta, ondoren, baieztapen garbia argudiatzeari ekin zion. “33 urte eta 4 hilabete eman ditut zerbitzuan. Urte horietan lehen mailako gorila izan naiz Wall Streeteko enpresen eta bankarien zerbitzura. Estortsioa egin dut, beldurra eragin dut eta gangster bat bezala jokatu dut kapitalismoaren aginduak betetzeko”.

Butlerrek kontatu zuen 1924an AEBek Mexikon zituzten petrolio interesak defendatu zituela, Kuban eta Haitin National City Banken bidea leundu zuela, 1909 eta 1912 artean Dominikar Errepublikan behartu zuela azukrea AEBei saltzera eta, lehenago, 1903an, Honduras “konbentzitu” zuela fruta konpainia handiei negozioa egiten utz ziezaien. Baina haren jarduna ez zen Erdialdeko Amerikara mugatu; 1927an Txinara joan zen oztopoak garbitu eta Standard Oil konpainiaren lana erraztera. “Al Caponeren aholkulari izan ninteen; hark soilik hiru hiritatik lortu zuen dirua eta marineok hiru kontinentetan jarduten genuen. Larderia eta estortsio



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA



SMEDLEY D. BUTLER (1881-1940) MILITAR KONDEKORATUA ETA EKINTZAILE BAKEZALEA.

zerrenda luzea osatu nuen eta, horregatik, dominaz eta ohorez saritu ninduten”.

Hurrengo lau urteetan gerraren aurkako askoz hitzaldi gehiago eman zituen militar ohi kuakeroak eta 1935ean liburu batean bildu zituen ideia horiek. *War Is a Racket* (Gerra iruzurra da) Connecticuteko hitzaldi hartako lehen hitzak erabili zituen izenbururako. Liburuxka sinplea zen, bost atalekoa, irakurterraza eta zuzena. Gerraren negozioa garbi azaltzen zuen: “Gerra Handia amaitu zenean AEBetan 21.000 milioiudun berri agertu ziren. (...) Nazio batek lurraldea zabaltzen duenean gutzion bizitzen truke, baliabideak oso bizkor aberasten diren gutxi batzuek ustiatzen dituzte. Baina kontua herriak ordaintzen du, gorputz triskatuekin, depresio ekonomikoarekin eta zerga igoerekin”.

Europako eta Asiako errealitateak zorrotz aztertu eta beste gerra handi baten atarian zeudela ondorioztatu zuen: “Egun

munduan 40 milioi gizon armatu daude. Eta gure politikariek beste gerra bat prestatzen ari direla ukatzeko gibela dute?”.

Smedley Butler 1940ko ekainean hil zen, 58 urte zituela, aurreikusitako gerra piztu eta gero. Urte batzuk lehenago herroizat zutena urdail-hesteetako minbiziak “edo antzeko zerbaitek” jota hil zen, medikuaren hitzetan. Ez zioten autopsiarik egin.

Bizi zen artean, zerbitzu sekretuak eta enpresa handiak Butler isilarazten saiatu ziren, besteak beste dirutza eskainiz. Butlerrek eroskeriari muzin egin eta saia-kerok salatu zituen. Baina prentsa haren karikaturak argitaratzen hasi zen eta haren aurreikuspenei iseka egin zien.

Butlerrek bete-betean asmatu zuen bere analisiarekin eta haren hitzak ez dute egunerokotasunik galdu, baina bere mezua ez zen zabaldu eta liburuak ez zuen ia inork irakurri. Isilaraztea lortu ez zuten arren bozgorailua, oihartzuna, ukatu zioten. ●

Lehen auto aseguruia

Lehen auto aseguruia Truman J. Martin doktoreak hartu zuen 1898ko otsailaren lehenean, Buffalon (New York, AEB). 12,25 dolar ordaindu zituen Martinek eta trukean 5.000 dolar arteko estaldura lortu zuen.

Karl Benzek gasolinazko lehen ibilgailua ekoiztu eta hiru urtera sinatutako lehen poliza hura egungo aseguruaren

oso antzekoa zen, baina ñabardura batekin: ez zituen beste autoekin izandako istripuak kontuan hartzen, zalgurdiekin izandakoak baizik. Izan ere, garai hartan motorrik gabeko 18 milioi ibilgailu zeuden erregistratuta AEBetan, eta 4.000 auto besterik ez. Hortaz, ia ezinezkoa zen beste auto batekin tustapust egitea. ●





BIZKAIA

irratia

Bizkaitik
bizkaira
bizkaieraz

2019

Fm: 102,6

www.bizkaiairratia.eus

94 446 68 00

IHI MENDI HOTZ

Ihia *Juncus* generokoa da. *Juncus* izena latineko "jungere" hitzetik dator, elkartu-lotu esan nahi du. Bere erabileraz asko argitzen du.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Ihia zer den galdetu dit lagun batek berdantzart. Landareei buruz irakurtzen ari zela, ihiarekin topo egin du. Nire erantzuna hauxe izan zen: belar mehe, borobil txorrotx, belaunetarainokoa. Euskarazko Wikipediak honela dio: "Ihiak alde hezeetan hazten diren belarki bizikorak dira (*Juncus* generoa), zurtoin zuzena eta malgua dutena. Orokorki 1,5 metroko garaiera dute". Euskal Herrian ihi mota ugari dugu eta denak *Juncus* generoan biltzen dira, bai. Arrazoi du, hezetasuna bada, ihia izateko arrisku handia. Hortik esaera: "Zia lez edan". Beste bat ere bada polita: "Jan idiak legez, edan ziriak legez". Ihiari zia eta ziria ere esaten zaio. Azkue sonatuaren aita Eusebio Maria de los Dolores Azkueren *Parnasorako bidea* liburuan, *Gabon afari bat* kopletan ere ageri da: "Ea tragu bat, bai ta bi bere

/ edan maitea zia lez; / balitz sarritan gabon eguna, / bein baino urtean eztalez!".

Langintza askotarako erabili izan da ihia: teilatuak moldatzeko, koipeztatu eta argia egiteko, saskigintzan, lokarri gisa, zerriak egiteko... *Juncus* generoaren izena latineko "jungere" hitzetik dator, eta elkartu-lotu esan nahi du, eta bere erabileraz asko argitzen du.

Inguru hezeetan ugari, erabilera ugari; gurekin urte asko daramatza ihiak. Hortik berea esateko izen ugaritasuna ere: ihi, ina, iz, ixa, iha, zia, zii, ziri, zipor... Hiztegiaren batean marmaro, alpitz eta sarratxi ere jasotzen dira... Sorgin-kilo ere esaten zitzaion Larraunen. Oñatin argi-mutila. Jaunkilatze ere jasota dago ihiaren izentzat, nire iritziz oker; Pierre Lhandek bere hiztegian lilipa edo nartzi-soaren izena dela jaso da.

Ihia ugaria den tokiak adierazteko ere izen mordoxka dugu: ihiztoki, ihiztoka, ihintzola, ihidi, ihitegi, ihidoi, ixedoi, inadia, ziiporra, zi-porro, ziadi, ziduri, zidoi, ziridoi...

Garatxoak kentzeko erritu bat jasoa dio Zornotzako Maria Luisa Artabe Barrinari Ziortza Artabek: ihia erritugileak hartuko du, ez garatxodunak, behe-behetik atera, punta zorrotza moztu eta beste zatian sartu gurutze bat eginez; hiru gurutze egin garatxoaren gainean hitz sekretuak esanez eta errezatu. Garatxo bakoitzeko ihi bat. Bide gurutze batean lurperatu, eta usteltzen denean garatxoa desagertuko da.

Ihithia etxea ezagutzen dut, Saran. Iñaki Azkune Mendia zestoar jantziak irakatsi zidan gure etxearen izenaren oinarrian ere ihia dagoela: ihi mendi hotz. ●



Ondo birziklatzea
denontzako onuragarria da

Errefusa **%10 murriztea**,
helburu. Baietz lortu!



AGROEKOLOGIA EROSKETA EREDUEN IKERKETA

170 KONTSUMO TALDETIK GORA DIRA EUSKAL HERRIAN**GARAZI ZABALETA**

Euskal Herriko Agroekologia Erosketa Ereduen ikerketa egin du EHKOLEktiboa elkarteak azken urtean, horretarako zazpi herrialdeetako kontsumo talde, elkarte nahiz kooperatiben jarduna aztertuz. Ohikoagoak diren talde horiez gain, kontsumo agroekologikoaren inguruan sortzen ari diren eredu eta esperientzia berriak ere izan dituzte aztergai egungo panoramaren argazki orokorra egiteko. Behin ikerketa eskuetan, talde eta esperientziaz artekotako harremanak eta elkarlana sustatzea dute helburu.

IKERKETAREN ZENBAIT ONDORIO

Euskal Herriko esperientzia eta sare guztiak identifikatzera iritsi ez badira ere, 170 kontsumo taldetik gora eta 16 kontsumitzaile elkarte identifikatu dituzte ikerketan, guztira 11.000 familia inguru biltzen dituztenak. Lehen ondorioa eremu geografikoari begirakoa izan da: kontsumo antolatua batez ere gune urbanoetan kokatua da. Nafarroako hegoaldean eta Ipar Euskal Herriko barnealdean atzeman dute gabeziarik handiena.

Azttertutako hamalau taldeetatik bostek produktu konbentzionalen eta ekologikoen eskaintza egiten dute, nahiz produktu ekologikoei garrantzi berezia

eman –barazki eta fruta eskaintzaren %100, esaterako-. Taldeetako parte-hartzean esanguratsua da emakumeen presentzia. “Esperientzia askotan emakumeek betetzen dituzte ardura handien duten karguak, soldatapeko pertsona gehienak emakumeak dira eta baztordeetan ere ugariagoa da emakumeen presentzia”, diote txostenean.

EKAINAREN 22AN TOPAKETAK

“Ikerketan zehar ikusi dugu esperientziak ugariak direla eta duela zenbait urtetik egituratuak daudela beraien arteko lankidetzaz sare batzuk. Baina konturatu gara, era berean, askotan sare horiek ez daudela oso aktibatuak eta esperientzia bakoitza berean zentratuta dagoela”. Leire Rodriguez EHKOLEktiboko dinamizatzaileak azaldu duenez, agroekologiaren bueltan diharduten taldeen arteko elkarlan eta trukea piztea dute orain helburu nagusi. Horretarako lehen hitzordua ekainaren 22an jarri dute Ziordian (Nafarroa).

Ikerketan jasotakoak aurkezteaz gain, kontsumo eredu ugariaren arteko elkarlan, sentsibilizazio, formakuntza eta aktibazio sozialaz eta ekoizleen eta herritar-

rren artean sortu beharreko zubiez arituko dira topaketetan. “Hiru lan ildo horiek bakarrera labur daitezke: agroekologiaren garapenean herritarrak antolatzeke topaketa espazio bat sortzea”. Horixe izanen dute helburu Ziordiako topaketetan. Kontsumo talde, elkarte, kooperatiba nahiz erosketak egiteko antolatuta dauden herritar orori egiten diete topaketan parte hartzeke deia. ●

**BIOTERRA**Euskadiko
EKO azoka
haundienaProduktu ekologikoak,
bioeraikuntza, energia
berriztagarriak eta
kontsumo arduratsua**7·8·9** Ekaina
FICOBAFicobara
zuzenean!
euskotren

1957ko urriaren 10a



KOLDO IZAGIRRE

Hegalik gabeko aingerua hegan, Kristo gurutziltzatua, dantzari bat... Ez diogu lehen ikusian antzik emanen proposatzen zaigunari. Arte moderno hark hastio zituen errealitatearen kopia zehatzak. Esadazu, hegalak behar lituzke aingeruak hegan egiteko? Ez deritzazu interpretazio lurkoi samarra zeruko biztanle bat irudikatzen? Aingeruak, segur ere, ez du hegan egin beharrik izanen harat-hunatetan ibiltzeko. Edo Kristo edo dantzaria. Zergatik ez Kristo dantzari?

Papirreflexian egina ematen du, agerikaren bateko materiala hor nonbait: "aldeko", "ezin", "erritarra", "eskubideaz" irakurtzen ahal ditugu txataletan. Izan liteke mezu bat, kode ezku bat. Ezin eskubideaz herritarra aldeko? Aldeko eskubideaz herritarra ezin? Ezin aldeko eskubideaz herritarra? Ilun samar, baina sumatzen zaio arrastoa.

Beiraduretan, muraletan, liburuetarako irudietan, erlijio arteak tradizioa berri zuten forma libreagoetara moldatuz 1950eko urtealdian, nola-halako banguardismoan sartuta. Sona handiko artisten artean azalduko ziren Xabier Alvarez de Eulate eta Xabier Egaña frantziskotarrak. Kaputxinoa ote Easo sinatzen duen artista hori? Aita Donostia, agian? ●

ZERUKO ARGIA 1965-1968

Ramon Saizarbitoria eta Gazte Naiz saila

MIREN OSA GALDONA

Elixabete Garmendiari orri honetan egin nion elkarrizketan aipatu zuen euskal prentsak ez duela gaintitu Ramon Saizarbitoriak eta Koldo Izagirrek kazetaritza eta literatura batzeko izan zuten maisutasuna 70eko hamarkada bukaeran, *Baietz astea gaizki bukatu* sailean. Inork gaintitu duen ala ez baloratzen ez da hasi, "euskal munduan pasa dituen garairik onenak" izan zirela esateko baliatu du Saizarbitoriak telefonoz egin dugun elkarrizketa. "Gaiztakeria gehiago egiten genituen orduan. Esango nuke orain kontsentsu handiago dagoela euskararen inguruan; lehen kritikoagoak ginen. Izugarrizko nostalgia dut garai hartaz".

Ez da harritzekoa Saizarbitoriaren kasuan atzera begiratu eta barrua uzurtzea; neurrira egokitutako plaza bihurtu zuten *Zeruko Argia*, euskarazko mediorik apenas zegoen garaian, hainbat gazteren ahotsa baitzen. "Dena zor diot ARGIAri. Umetan kalea izaten da eskola, bada niretzat ARGIA eskola izan zen: idazten hasi nintzen kalea". Rikardo Arregiren eskariz hasi zen lehen artikulua *Zeruko Argian* argitaratzen, 60ko hamarkadaren lehen urteetan. Agustín Ezeiza zen orduko Kaputxinoen arduraduna Okendo Kaleko bulegoan, eta bertan biltzen ziren Carlos Santamaria, Rikardo Arregi, eta beste hainbat.

Zeruko Argiaren berpizte urteak ziren. Saizarbitoriak *Gazte Naiz* atalaren ardura izan zuen garai hartan. Kolaboratzaile andana izan zuen atal hark eta Koldo Izagirrek *Mendearen umeek munduari desafio* hitzaldian azaldu zuen moduan, zalaparta bat edo beste eragin zuen. Saizarbitoriak berak idatzitako *Ez naiz jatorra* artikulua, esaterako, horietako bat izan zen. Euskal izaera klasikoa herrikoia, baserri girokoa eta folklorikoa zela aldarrikatzen zutenei kontrapuntua erakutsi eta, hiritar gazte, moderno eta abangoardista gisa aurkeztu zuen bere burua artikulua hartan, betiko ezaugarrien faltan euskaldun petoa zela



Ramon Saizarbitoria 1976an.

aldarrikatuz. Sektore kontserbadorearen kritikak ez ziren nolanhikoak izan, nahiz eta Ezeiza kaputxinoaren babesa lehen unetik izan zuen.

Bigarren historia 1966. urtean pasatutakoa da, Aberri Eguna ospatzeko ETAren lehen deialdi klandestinoaren harira gertatutakoa. Mikel Forcadak Irunen elkartzeko deia marrazkian ilustratu zuen, bera baitzen atalaren ilustratzailea garai hartan: "Oso mezu ezkutua zen, marrazki abstraktu baten behealdean Irun jartzen zuen eta ongi irakurtzeko aldizkariari buelta eman behar zitzaion. Carlos Santamaria ohartu egin zen eta halakorik ezin genuela egin esan zigun. Forcada ezer argitaratu gabe egon zen bolada batez".

Urte gogoangarriak izan zirela dio Saizarbitoriak, lagunaren arteko topagune ez ezik, idazle gisa trebatzeko plaza ere izan zelako berarentzat *Zeruko Argia*. Belaualdi berriei lekua uzteko asmoz utzi zion aldizkarian idazteari, berak ehundutako bideak jarraipena izan zezan. ●

ZIENTZIA-KAZETARITZA ARLOKO CAF-ELHUYAR SARIA

Iñaki Sanz-Azkue, bertako espezieen dibulgatzailea

**ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA**

Argazkia: Elhuyar Fundazioa.

Iñaki Sanz-Azkue ARGIAko kolaboratzailea zoriontzeko tartea hartu dugu ale honetan, zientzia-kazetaritzaren arloko CAF-Elhuyar Saria irabazi berri baitu, zergatik eta ARGIAren *Sagarrondotik* aldizkarian plazaratutako *Hegaztiak, erleak, zomorroak...* *Sagastien zaindari txikiak* erreportajeagatik.

Esaldi batean laburtu dit egindako lana: "Sagastietan geroz eta bioaniztasun handiagoa izan, orduan eta hegazti eta zomorro aberastasun handiagoa izango du eremuak; izurrite gutxiago jasango ditu, polinizazioa altuagoa izango da eta, ondorioz, uzta hobe lortzeko aukera edukiko dugu".

Bi urte paseak ditu astekari honetan kolaboratzen hasi zenetik, biologoa bera, eta argitaratutako lanen errepassoa egiten baduzu ohartuko zara Euskal Herriko espezieak eta gaiak dituela maite. *Sagarrondotik* aldizkari erreportajea saritzeko ere, inork aitortu omen dionez, baloratu dutela bertakoaz hitz egitea. Bertakoaren jakintza dibulgatzea. Bertakoa modu zientifikoan aztertu eta proposamenak egitea. "Bertako produktuari geroz eta garrantzi handiagoa ematen diogula dirudi, eta lan honekin ahalegindu naiz zientifikoki azaltzen nola indartu dezakegun,

zuku gehien nola atera diezaiokegun inguratzen gaituenari", azaldu du Sanz-Azkuek.

**BERTAKOA NOLA LAGUNDU
GLOBALIZAZIOAREN AURREAN?**

Egin dezagun ariketa txiki bat: zerrendatuko ditugu minutu batez burura datozkigun animalia guztiak. Eta orain zerrendari begiratu, hasi erreparatzen horietatik zenbat diren bertakoak eta zenbat exotikoak. Geroz eta mundu globalizatuago honek ekarri dizkigu gure liburueta kanpoko, batez ere ugaztunen irudiak, animalia koloretsuenak, beldurgarrienak, deigarrienak. Baina honek dakar gure iruditeriatik, gure jakintzatik bertakoa kentzea. Ez ditugu bertako espezieak baloratzen. Eta horrek kontserbazioan eragin handia izan lezake, belaunaldi oso batek ez badu animalion ezagutzarik.

Baina ahanztura horren arriskuarekin penatuta geratu beharrean, ekitea hobe, ala? Karta-joko bat prestatzen ari dira ARGIA, Aranzadiko kide den Iñaki Sanz-Azkue bera, Lore Erriondo EHUKo pedagogoa eta Eñaut Aiartzaguena ilustratzailea. Euskal Herriko zazpi ekosistema oinarri hartuz bertako espezieak ezagutzuz jolas-teko aukera emango du karta jokoak. ●

**ARGIA**

1919 · 2019

AGENDA**ARGIAK 100 URTE:
ZERUKOTIK LURREKORA**

📍 Donostia San Telmo Museoa
🕒 19:00

Maiatzak 21 asteartea
Koldo Izagirre
Mendearen umeek munduari desafio hitzaldia.

Maiatzak 22 asteazkena
Antton Olariaga eta Joseba Larratxe
100 urte, ehunka irudi hitzaldi ilustratua.

Maiatzak 24 ostirala
**Joxemari Ostolaza Xalbardin,
Malores Etxeberria eta Josu Landa**
Enpeinatzea ez bada libre errezitala.

Maiatzak 28 asteartea
Elixabete Garmendia
Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat hitzaldia.

**ZIBURUKO
EUSKAL LIBURU ETA
DISKO AZOKA**

Ekainaren 1ean
📍 Ziburuko herriko plazan
🕒 11:00 - 20:00

Baltsan Elkarateak eta
ARGIAk elkarlanean antolatuta.

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS**NOLA DA
MUSUTRUK?**

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu ARGIA Jendearen zat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

**SAN TELMO MUSEORAKO SARRERAK**

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Ekainak 13, osteguna, 10:00etan

*“Entzuleei konpromisoa
eskatzen diegu”*



PELAX

“Izenik gabeko disko bat aterako dugu. Eta aurten aterako dugun bigarren baten aurrekaria izango da”, kontatu zigun duela hilabete batzuk Unai Pelayok, Pelax taldeko buruak. Orain arte egindakotik oso urrun nabaritu nuen: “Lokalean inprobisazio saio batzuk egin genituen eta hortik abiatuta atera da ideia”. Lehen zatia maiatzaren 9an kaleratu dute *Berriaren* Badok atarian, eta bigarrena urtea amaitu aurretik argitaratzea espero dute. Taldearen erronka berri hau hobe ulertzeko, diskoa grabatzen ari ziren Berako Atala estudioa hurbiltzea beste aukerarik ez genuen izan.

 XALBA RAMIREZ
 MALEN OTXOA

Indartsu sartu dira Pelaxeko kideak estudioko lehen egunean. Iñigo Irazoki da estudioko teknikaria, eta oraingo honetan ere analogikoan grabatuko dute. Ordenagailua seinalatu dio Irazokik: “Hori bakarrik dago ondo doan ikusteko. Grabazioa ez da bertatik pasatzen”. Zuzenean zintan grabatuko dute, “lehen bezala”. Lau musikarietako batek akatsik egingo balu, kanta osorik erre-pikatu beharko litzateke.

Eta zergatik egin nahiko dute horrela, egun digitalki grabatzeak ematen dituen erraztasunak kontuan edukita? Erantzuna argi du Pelayok: “Rocka horrela grabatu behar da, elkarrekin. Bestela ez du zentzurik [isilune bat egin du]. Rocka eta edozer gauza, egia esan”.

Taldearen kontzentrazioa eta giroa ederrak dira. Aurreko egunetan egon dira estudioan soinuak hartzen. Iker Vazquezek lau bateria probatu ditu salako hainbat lekutan kokatuz, eta azkenean gutxien espero zutena aukeratu zuten. Antzekoa egin dute gainerako instrumentu eta anplifikagailuekin ere.

Taldeak bezperan grabatu zuen lehen kanta eta denek elkarrekin entzun dute. “Ederki dago!” bota dute guztiek... “baina hobetu dezakegu!”. Barre egin dute, erronka izango balitz bezala. Jo, entzun, jo, entzun, akatsei barre egin eta hainbesterako ez dela barneratuta daukate. “Modu honetan grabatuta ez dugu perfekzioa lortzen, baina bai bestela lortu ezin daitezkeen sentimenduak erregistratzea”.

20 MINUTUKO BI KANTA

Disko bikoitzaren ideia, beste modu batean hezurramitu dute azkenean. Rock progresibora jo dute, euren artean ia etenik ez duten bi track-ekin ia 40 minutuko iraupena duen diskoa osatuz. Ez da ohikoa Pelaxen musikan horrelako kanta luzeak osatzea. Baina hau ez da orain artekoarekin apurtzea: formak aldatu diren arren, mamiak bera izaten jarraitzen du.

“Benetako aldaketa elkarrekin lokal bat hartzea izan da”, aitortu du Pelayok. “Orduak sartu ditugu errentagarria izan zedin guretzat. Horrek ekarri du beste maila bateko konfiantza sortzea gure artean: baten harrikadari besteok jarraitu diogu”.

Lokalean inprobisazio saio luzeak egiten hasi ziren eta ideia berriak gartzten. “Musika elkarrekin entzuten jarri ginen” aitortu du Pelayok eta “hori ere izan da erabakigarria. Norabide musikal berean jarri gara”. “King Gizzard and the Lizard Wizard taldearekin bereziki!”, moztu du Iñigo Ozaetak. Australiako taldeak urte batean bost disko (luze!) kaleratu zituen, “horrek erakutsi zigun edozer egin genezakeela”. Eta erronka bezala planteatu dute: “Gai al gara gusatzun zaigun 20 minutuko kanta bat konposatzeko?”

Ozaetak ere ikusten du aldea: “Riff batetik konposatzen hasi baino, bilatzen duguna adostu dugu lehenik. Intentsitatea igo, jaitsi... eta grafiko batekin lan egin genuen eta horren bitartez joan gara sortzen melodiak”. Vazquezek hausnarketa gehitu du: “Horrek ekarri

du gure artean komunikazio hobea eduki behar izan dugula ere, elkar ulertu eta sentsazioak komunikatzen jakitea ez delako hain erraza”.

Talkak egiten du didaktika diskoan “talde bihurtu zirela” adierazi zuten eta ordutik gaur egun arte jauzi itzela egin dutela nabari zaie. Denek hitz egiten dute gainontzekoez miresmenez eta konfiantza osoz. Ederra da hori ikustea, kanta leku batetik bestera mugituz gero elkarri jarraituko diotela sentitzea.

Diskoari dagokionez, A aldearen lehen zatia “nahiko kanta” dela diote. Baina A2 eta B aldeak bi riffetan oinarritu dira, eta horien gainean osatu dira. Vazquezek ustez, “biniloaren hasiera Pelax zenarekin hasten da eta aurrera doan heinean urruntzen doa zenetik. Eta hori bai, bilatu egin dugu, diskoan eboluzioa ikus zedin”.

Hala ere, 2019ko proiektu bezala ikusten dute. “Ez da erabaki bat izan, ez dugu esan ‘rock progresiboa egingo dugu’; orain hau egin nahi dugu eta kito”. Bigarren diskoa, urtea bukatu aurretik kaleratuko dute, eta hau “baina zoroa goa” izango dela aurreikusten dute.

MUSIKA ENTZUTEKO ASTIA

Lokalean egindako inprobisazio saio horien gainean bazegoen kontzeptu zentralago bat: “Egun jendeak musika kontsumitzeko dituen ohiturek amorratzen gaituzte. Jada ez dira diskoak osorik entzuten, jaitsi egin da gauza berriak deskubritzeko grina”.



Pelayoren arabera “berehalakotasuna gailentzen da egun”. “Asko kontsumitzen da irudi batekin lagunduta eta horrek eragiten du musika kontsumitzaileengan. Azkenean ohitzen dira irudi batekin kontsumitzera. Ez gaude ohituta kanta bat ulertzeko garunari eragiten, taldearekin eta bere proposamenekin engaiatzen. Beraz, disko hau egitearen atzean badago asmo bat, oinarrizko kontzeptu bat eta da, sentsibilitate artistikoa galtzen ari garela”. Andoni Olaetxeak borobildu du ideia hori: “Gure ustez artearekin ahalegina egin behar da”.

“Nahi dugu jendeak disko hau entzun dezala guk entzuten dugun bezala”, jarraitu du Pelayok. “Hau da, diskoa entzuten nahi baduzu, hartu beharko dituzu 40 minutu eta hasieratik amaierara horretan egon. Ez da hainbeste eskatzea ezta? Gure aste luzean, 40 minutuko arreta... gainera, terapeutikoa da!”.

GAILUA EZ DAGO ERABILGARRI

Donostiako Egia auzoa T.A.O. makinaz josi dute duela hilabete gutxi. Egun batean, makinak dirua hartzen ez ziola-eta “gailua ez dago erabilgarri” idatzi zuen tiket batean, isuna ekidite aldera.

Gogoeta egin zuen: “Zer gertatuko litzateke –musikarekin adibidez– egunen batean gailu guztiak hondatu ezker?”

Azkenaldian ohikoa da musikariak –eta gainontzeko artistak, normalean ahots gutxiagorekin– kexatzen entzu-



“Jendeak musika kontsumitzeko dituen ohiturek amorratzen gaituzte. Jada ez dira diskoak osorik entzuten, jaitsi egin da gauza berriak deskubritzeko grina”

tea antolatzaileek errentagarriak diren taldeak soilik programatzen dituztelako. Errentagarritasuna zaleek ematen dutenez –zale kopuruak eta euren eros ahalmenak– azkar doaz ke-

xak eurengana: jendea kostunbrista dela, ematen diotena irensten duela espiritu kritikorik gabe... Pelaxtarrek egin duten proposamenetik abiatuta, ordea, beste gogoeta bat ere planteatu daiteke. Ez ote dira musikari gehienak hain zuzen kritikatzuten hori egiten aritu? Talde guztiak –gehienak– “jendeari gustatuko zaion” singlearen bila, bideoklip ikusgarri bat, “promo” lanketa txukuna, sare sozialetan “kalitatezko edukiak”... Ez ote dira musikariak euren teilatuari harrika aritu, “jendeak ematen diotena nahi du eta nahi duena ematen diogu” horretan, gurpil zoroa elikatzen?

Izenik ez duen disko bikoitz bat, kantak entzuteko, ezinbestean, osorik entzun behar den formatuan. Agian ez dute irratietan pintzatuko. Eta agian ez dute Spotify-ko nik-zer-dakit-ze zerrendatan jarriko, ez eta parrandako dantzalekuetan ere. Baina kontzesio bakar bat egin gabe sortutako lan honekin emozioak pizten jarraituko dute, musikaren bidez gauzak aldatu daitezkeela sinestarazten. Horretarako prest dagoen entzulearengan, behinik behin. Agian oraindik badago esperantzarik. ●

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



📍 **ZIBURU**
Herriko plazan

📅 **EKAINAREN 1ean**
Larunbata
11:00 - 20:00





LIBURUA

Iruditzak morez bezti!



EGILEAK: IRATI EGUREN ARRUTI, PAULA ESTÉVEZ, ARRATE RODRIGUEZ, MAITE CABALLERO, DANELE SARRIUGARTE & JOSEVISKY LARRATXE, MAITE GURRUTXAGA & IRATI JIMENEZ, IRATI F. G. & REGINA SALCEDO, NEREA UNANUA OTXOANTESANA & AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA, TXAKUR GORRIA, LOINAZ LEKUONA, MAITANE GARTZIANDIA, AINARA AZPIAZU ADURIZ AXPI, URBELTZ & ETXARTE, EIDER EIBAR & MIREN AMURIZA. (Hautetako lau argazkian).

AMAIA ALVAREZ URIA

Txalapartak euskal emakume ilustratzaileen kolektiboaren lehen lana kaleratu berri du. Hamalau lan dira, hogeit hamar egile, bi kolore (teila eta berdea) eta gai bat: nitasuna. Hitzaurrean diotenez: “Errealitatearen esperientzia subjektiboa adieraztea du helburu arteak eta beti filtratu du ni batek”. Aniztasuna dugu, estilo desberdinetako ibilitakoak eta hasiberriak.

Kolektiboa 2016an sortu zen “komikia eta feminismoa uztartzen dituen egileen sarea osatzeko eta proiektu berriak abiarazteko”. Haien manifestuan hurrengo diote: “Orokorrean, umorea eta satira, eta are zehazkiago binetagitza eta komikigintza maskulinitateek gobernaturiko esparruak izan dira. Bai, baita gure Euskal Herri txiki honetan ere. Egoerari erreparatzerakoan, ha-

rrigarriki beldurtu gintuen ikustek zeinen tradizional eta heteronormatibo (izan) garen istorioen nahiz gorpuzten sorkuntzan eta zeinen espazio gutxi (izan) duten ikuspegi binario horri kontra egin eta haratago joateko nahia (izan) duten sortzaileek”.


Margolan, ilustrazio eta komikiak daude, collagea, marrazki eskematiakoak eta irudi errealistak. Bineta batzuk orrialde osoko koadroak dira, marra bereizlerik bakoak, bestetarik komiki formato sekuentzialekoak. Protagonista guztiak emakumeak dira; euren bizipenak ikusgarri egin eta baloratuz. Testua agertzen eta desagertzen da, askotan bunbuilorik gabe, binetetik kanpo irretetaino. Marra zinetiko zuzen gutxi dago, gehienetan borobiltasuna agertzen da formetan. Onomatopeiak ere ez



TUPUSTI!
HAINBAT EGILE
TXALAPARTA, 2019

dira ugariak. Gehienek bi kolore tartekatutuzte, baina kolore bakarraren alde egindakoen artean teila da nagusi.

Kea dario azaleko arkatzari eta ez da harritzekoa, askotariko ekarpenak ditugulako bilduman: nitasunean murgiltzeko gonbitea; distopia bat ezagutzeko aukera; haurtzaroko oroitzapenei buruzko elkarrizketa; Narciso Narzisa bihurtuta ikustea; jendaurreko dugun nia; testu baten haragiztatzea; tradizioa auzitan jartzea; identitatea erakitzean agertutako mugak; autoironia konpromiso eta askatasunaren artean; norberaren alde basatiaren muturra; egunero ondoan duzuna maitatzea; usaimenaren bidezko genealogia feminista; emakume erreferenteak espaziotik ozeanora; eta hilekoaren kontaketa. Animatzen? ●



DISKOA

Salatzeko eta borrokatzeko doinu gogorrak



ION GARATE (BATERIA), AITOR AZKOLAIN (GITARRA), MIKEL ROMERO (GITARRA ETA AHOTSA) ETA UNAI SUKIA (BAXUA).

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Metal eta rock doinu gogorrak, eta erritmo astunak eta setatiak jotzen ditu Eztanda taldeak. Hala ere, hainbat kantaren zati batzuen erritmoak azkarragoak diren bezala, lasaigoak eta leunagoak diren tartek ere badira.

Aipagarriak dira gitarren arteko jolasak eta beren marrazki ilunak, baita melodikoagoak diren punteoak ere. Era berean, Mikel abeslariak ahots urratua erabiltzen du, baina modu melodikoan ere kantatzen du.

Karlos Osinaga soinu teknikariarekin, soinu trinkoa eta sendoa gauzatu dute Bonbereneako grabazio estudioan, eta kantak garbi eta ozen entzuten dira, aldarria, elkertasuna, kritika, salaketa eta borrokarekin aurrera egiteko borondatea transmititzeko.

Horrela, *Utopia* kantan diotenez, "ibiltzen jarraitzeko, borrokatzeko", jotzen dute, horretarako egiten dituzte kantuak. "Zenbat denbora pasatu beharko dugu sufrizten, nazkatu naiz, borrokatu nahi dut, nire bizitza iraultzan txertatu" (*Ez!*).

Bidegabekeriak salatzen dituzte: "Kontaminazio, aglomerazio, estresaren palazio da hiria, ez dira kontuan hartzen herritarren beharrak" (*Hiria = Aberia*), "Txikizioz jositako mundu batean errua norena da? Gizakia hiltzaila, suntsitzaila" (*Errua Norena Da?*).

Eta, besteak beste, jendearen arteko dibertsitatea aldarrikatzen dute: "Dibertsitatea aberastasuna, erakus dezagun gure elkertasuna" (*Dibertsitatea*).

Tolosaldeakoak dira taldekideak, Belauntzakoak, Ibarraoak eta Tolosa-



ERRUA NORENA DA? EZTANDA

BONBERENEA EKINTZAK, 2019

koak, hain zuzen: Ion Garate (bateria), Aitor Azkolain (gitarra), Mikel Romero (gitarra eta ahotsa) eta Unai Sukia (baxua). 2015ean sortu zuten Eztanda taldea, eta urtebete geroago egin zuten lehen jendaurreko emanaldia. Pixkanaka aritu dira beren bidea egiten, musika grinak bultzatuta, eta beren ideiak eta iritziak azaltzeko, aldarri egiteko, bidegabekeriak salatzeko, borrokatzeko.

2018ko irailean, hiru kantaz osatutako maketa egin zuten Anoetako gaztetxean, eta 2018ko abenduan sei kanta grabatu dituzte beren lehen diskoa egiteko. Maketa abiapuntua izan da, eta hor antzematen diren ideiak edeki osatu eta biribildu dituzte diskoan, kanten konposizioaren, moldaketan eta soinuaren aldetik argi eta garbi suma daitekeenez. ●



“Minutu batez, segundo batez, enpeinatzea aski da”

XALBA RAMIREZ

DANI BLANCO

Belaunaldi bakoitzak bere lengoaiaren egiten du. Eta Joxemari Ostolaza ‘Xalbardin’-ek, Josu Landak eta Malores Etxeberriak euren hautatu dute: a cappella errezitaldia. Bertso eta olerkiak hola, apaingarri-rik-apainkeriarik gabe, bateria sampler edo bideojockeyrik gabe, adinarentzako lifting gabe. Plaza erraza dute, aspaldiko lagunak, gehienak.

Dena da *Hautua*. Jose Luis Otamendiaren olerkiarekin egin dute lehen aldarrikapena: euskara ez da beharrezkoa, eta hain zuzen derrigorrezkoa ez delako da libre aukeratzea zer hizkuntzatan mintzatu. “Eta hitzek beti naramate norbaitengana”. Komunitatea, nazioa, sortzen du euskarak; eta ez halaberrez, *halanahiez* baizik. Nahi dugulako elkartzeko gara, nahi dugulako gara. Utzi albo batera euskara-ikasilana-lortzea-errazagoa-da diskurtso txatxu hori. Eta elkartu gaitzen izan nahi dugun lakoak. Ezin enpeinatu euskararik gabe.

1975eko martxoaren 9ko *Zeruko Argia*-n Isabel delakoak salatuko ditu Azpillaga eta Lazkao Txiki bertsolariak, euren “matxismoa delako hori”. “Jaunak ezberdin egindakoa nola berdinduko genuen gizakiok”, aritu omen zen Lazkao Txiki emakumeen eskubideei buruz. Isabelek

zuzen erantzun “ez dugu gizonekin berdindu nahi, zuek ere libre ez zaretelako”. Bertsolariak herriaren esnatzaileak izan daitezke, baldin eta soilik baldin, ez badute ahazten –edo barregarri bihurtzen– herriarren erdia. Zapalkuntzaren adina dauka honen kontrako borroka. Ezin enpeinatu feminismoa gabe.

Prima gaiztoak prima eijerra kolpatu. Ezin da gure historia hitz egin aipatu gabe, tamalez, tortura. Legez kanpokoa, zein legezkoa. *Euskaldunon Egunkaria*-ko lagunena, adibidez, gertukoa, ezaguna, injustua, mingarria. Minbiziaren eragilea. Ezin enpeinatu oinazetik gabe.

Enpeinuak ez gaitu libratu faxismotik ere. Ekhiñe Izagirrekin batera xuxurlatu du polifoniaren aldarrikapena: “Francok hiltzerik/ lortu ez zuen/ gorria naiz/ (...) sorgina naiz/ (...) euskalduna naiz/ Hildako guztien izenean/ ez dira pasako!”. Ahotsak oihartzunekin nahastu dira, hildakoak berpiztu izan balira bezala: “Ez ahaztu”. Ezin enpeinatu memoriarik gabe.

“Zurrunbilotik zurrunbilora / (...) hoietzek ziren gure sexua / droga eta rokanrola”. Batailatxoak kontatzeko aukera nola alferrik galdu batailatxoak kontatzeko aukerak dituenak? ARGIAN igarotako pasadi-

ARGIAK 100 URTE
‘ENPEINATZEA EZ BADA LIBRE’
ERREZITALDIA

NOIZ: Maiatzak 24

NON: San Telmo Museoa, Donostia

zoak eta “pulamentua” ekarri dute bertara. Keriarik gabe eta tasun dezenterekin, ederra da oroimena ez denean oroi-mina, noizbehinka bada ere. Izan ere, ezin enpeinatu lagunik gabe.

Baina batailatxoak gorabehera, ez gauden atzera begirako ekitaldi batean “gure garaian” errekturso literarioa gastatu arte erabili izan dena. Bakoitzaren enpeinu bakoitzari esker, belaunaldi guztiok saiakera beraren aurrean izan gara (hirutan, lautan jarrai), eta elkar ezagutu dugu.


Belaunaldi bakoitzak izan dezake bere lengoia. Baina belaunaldi oro ezagutu daiteke hurrengo belaunaldian. Belaunaldiak ez baitira desagertzen: ederra dena bizirik mantentzen delako, gihar-bihotz berrietan. Enpeinatzea libre izateaz gain, eraginkorra ere badelako. Eta “hain gazteak” izan gabe, “oraindik ere mereziko duelako enpeinuetan hasteak”; asko –gehiegi– dugulako egiteko.

“Handitarako beharko dugu/ txikitik ere eragin / esne berrien, gorputz berrien / ume berrien emagin. / Enpeinatzea ez bada libre / alferrik dugu indarra / hau da txoriak gari tartean / goseak egon beharra.”

Saiatuko al gara? ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Apur bat bustia. Ubeldura. **2.** Kalabaza (alderantziz). Jardun, eragon. **3.** Ostertz. **4.** Arabako hiriburua. **5.** Hitzordua. Trumoa maiz jotzen duena. **6.** Gantz. **Argazkiko txoriak.** **7.** Izar txikia. Kotoizko ehun. **8.** Lasaitu. Jantzi mota. Suari dariona.

GOITIK BEHERA:

1. Handituz joan. Hitz ematea. **2.** Euskal Idazleen Elkarte. Perretxikoa. **3.** Enborraren bihotza, zur gogorra duena. **4.** Lur-esferaren zirkunferentzia handiena. **5.** Nafarroako urtegia. Kontsonante bikoitza. **6.** Ardi hitz-elkarketan. Atzizki txikigarria. **7.** Urte. **8.** Biziki. **9.** Norbait erortzeko zorian dagoenean esaten den hitza. Irekigunea, barrunbea. **10.** Bizi garen planeta. ...Légasse, Euskal Herriko idazle eta historialari. **11.** Gurdia. **12.** Garoa, iratzea. **13.** ...egin, arrainak amuan hozka egin. **14.** Aristokrata eta frantsesezko idazlea izan zen. **15.** Ukimenari eragiteko modua.

Sudokua

ERRAZA



	1		7	2		9	6
	9		3			8	7
		1			4		
4	9			1	8		
8	5	1	9		3	7	6
		6	4			2	9
		5			7		
1	8			4			5
2	4		6	5			7

ZAILA

7						8	9	4
8					7	2		
				4	5			
4	3							
	5		4		3		8	
							3	1
			9	8				
		2	1					5
9	4	6						8

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Mardul
- Adineko gizona
- Europako moneta
- Aldarte
- Lurpeko tren
- Geldoa
- Ahul
- Atsegin
- Oso erabateko
- Zerealen zurtoin
- Hizketa berriketa
- Burusoila karsoila
- Trankil bare

GUREN
LASAI

EBAZPENAK

- LASAI
 - SOLIA
 - SOLAS
 - LASTO
 - TOTAL
 - LAKET
 - MALET
 - MOTEL
 - METRO
 - UMORE
 - EUROA
 - AGURE
 - GUREN
- ANAGRAMAK**
- ESKAINEAN LUR BUSTI.
 - GURE AITA NEGARTI.

9	4	6	5	3	2	1	7	8
3	8	2	1	7	6	9	4	5
5	7	1	9	8	4	3	2	6
6	2	8	7	5	9	4	3	1
1	5	9	4	6	3	7	8	2
4	3	7	2	1	8	5	6	9
2	9	3	8	4	5	6	1	7
8	1	4	6	9	7	2	5	3
7	6	5	3	2	1	8	9	4

2	4	3	6	5	8	9	7	1
1	8	7	3	4	9	6	5	2
9	6	5	2	1	7	3	4	8
7	3	6	4	8	5	2	1	9
8	5	1	9	2	3	7	6	4
4	2	9	7	6	1	8	3	5
5	7	8	1	9	6	4	2	3
6	9	2	5	3	4	1	8	7
3	1	4	8	7	2	5	9	6

ERRAZA

UKIA.
 MARK, 11. ORGA, 12. IRA, 13. TENK, 14. SADE, 15.
 TXU, 7. URTEKO, 8. BIZIRO, 9. ET, ZULOA, 10. LUR,
 ZIZA, 3. ZURGHAR, 4. EKUATORE, 5. ESA, 11. 6. ART,
 JAKA, KEA, **GOITIK BEHERA**: 1. HAZI, ZIN, 2. EIE,
 TXOLARREK, 7. IZARTXO, ORGANDI, 8. NARETU,
 ZERUERTZ, 4. GASTEIZ, 5. ZITIA, TRUMOITSU, 6. ZIHO,
 ESKER-ESKUIN: 1. HEZEA, UBEL, 2. AIUK, ARTU, 3.

Modou Faye “Beltxa”

IRUÑEKO HAUTAGAI
BALIOGABETUA



ETORKIN AROA, IKASTEKO AROA

“Kuriositate handiko pertsona naiz. Toki guztietan ibiltzen naiz ikasteko asmoz, ez nukeelako nahi biharko egunean nire etorkin aroz damutu. Izan ere, etorkin guztiok pentsatzen dugu biharko egunean, itzultzean, baldin eta bizirik segitzen badugu. Ikasi nahi dut, gero nire herrian erabili ahal izateko. Panafricanista naiz, Afrika jartzen dut edozerren gainetik. Uste dut munduak ezin duela funtzionatu jendeak ez badu Afrika ezagutzen, han badirelako mendebaldeko herrialdeetan falta diren elementuak. Hau beزالako herrialde batean, bi edo hiru hizkuntzekin, jendeak ez du elkar aguantatzen. Afrikan 1.030 hizkuntza dira, eta armonian bizi gara. Behintzat hori nola lortu den jakiteagatik mereziko luke Afrika ezagutzeak. Iruñean *Africa United* elkarteko kide naiz, eta musikari gisa aritzen naiz. Jostuna eta tapizaria ere banaiz”.

“Paperik, medikurako zertifikaturik ere ez duenak, zer esango du politikaz?”

Iruñeko EH Bilduren zerrendetan zihoan, baina koalizioari ez zioten utzi Modou Faye *Beltxa*-ren izena erregistratzen, espainiar nazionaliterik ez duelako. Hamalau urte dira Iruñean bizi dela, bertan lan egin eta kotizatzen du, baina ez du bozkatzeko eta bozkatua izateko eskubiderik. Harentzat ez da kontu berria, etorkinen eskubide politikoen kontrako eraso berri bat baizik. Eta hala ere, konforme da, erabakiak arazoa ikusarazteko balio izan duelakoan.

 **ANDER PEREZ**
 **JOSU SANTESTEBAN**

Nola iritsi zinen Iruñera?

Nik Alemaniara joateko bisa nuen Senegalen. Hamabost egun eman behar nituen Frankfurt, baina Dakartik hara joateko hegazkinak ordubeteko eskala zuen Madril. Barajasen, ez dakit zergatik, Iruñean bizi zen Dakarko auzokide bati deitu nion. Hark esan zidan Espainiako estatuan aurreikusia zela etorkinen erregularizazioa. 2005a zen. Informazio leihatilaz azaldu zidaten non hartu behar nuen autobusa, Iruñera iristeko. Ordutik hemen bizi naiz. Bi hiri ezagutzen ditut, Dakar eta Iruñea. Alemania non den ere ez dakit [barrez].

Zein da zure uneko egoera?

Uste nuen legala nintzela, baina legearekin inoiz ez gara legalak. Paperak behar ditugu lanerako, bidaiatzeko, bozkatzeko, arnasteko... Beltza beti ari da paper bat edo bestearen atzetik, eta azkenean, beltza inoiz ez da libre eskubide bat betetzeko. Beltz batentzat erroldatzea oztopo bada, pentsa beste gauza batzuk egitea.

Bada etorkinekiko estigma bat: ez duzuela interesik bertako politikan.

Ez gaituzte ezagutzen, eta ez dakite afrikarrok oso interesatuta gaudela politikan, batez ere politikek izorratzen gaituztelako. Afrikan gertatzen dena ere gertutik jarraitzen dugu, horrek behartu gaituelako handik ateratzera. Gauza bat da inplikatu nahi izatea, eta beste bat legeak uzten dizun. Afrikarroi hegoak moztzen dizkigute, dena dugu debeku. Ez da ez dugula parte hartu nahi: berdindu ditzagun eskubideak, ea politika gustatzen zaigun ala ez. Paperik, medikurako zertifikaturik ere ez duenak, zer esango du politikaz?

Zerk eraman zintuen EH Bilduren zerrendetara?

Hamalau urte daramatzat Iruñean, eta bi arotan bereizi dezaket nire egonaldia: [Joseba] Asironen aurrekoa eta Asironena. Asironen aurretik Iruñea kartzela zen ni eta beste etorkin askorentzat, dena zen debekua eta jazarpen poliziala. Orain beste giro bat nabari da, hizkuntz ezberdi-



"GUK GAUZA ASKO IKASTEN DITUGU HEMEN, BAINA USTE DUGU ZERBAIT, TXIKIA BADA ERE, IRAKATS DIEZAIKEGULA HEMENGO JENDEARI".

netako jende ezberdina elkarrekin bizi den eta hori aberastasuntzat duen hiri bat nabari da. Udalak ateak ireki ditu guretzat.

Zertan ikusten da hori?

Baltasar erregearena, adibidez. Iruñean txuri bat beltzez margotzen jarraitzen genuen, ematen zuen Iruñean ez zela beltzik. Beltzek zikintzen dutela ari ziren haurrei erakusten, Baltasarrek muxu ematean arrastoa uzten zuelako. Asironek hori aldatu zuen.

Dena dela, Asironekiko begirunea piztu zidana, nire memorian eta afrikar guztion bihotzean iltzatua dagoena, Elhadji Ndiaye senegaldarraren heriotzaren ostekoa izan zen [Espainiako poliziaren komisaldegian hila, 2016ko urrian]. Oso kolpe gogorra izan zen senegaldar komunitatearentzat, baina asko lagundu gintuen alkatearen hurbiltzeko eta laguntzeko moduak. Gure manifestazioetan izan zen, gu babes ten. Niri, pertsonalki, barruraino iritsi zitzaidan maitasun hori. Ezin dira konparatu lehengo eta oraingo garaiak.

Zure hautagaitza bertan behera utzi

dute. Zer iritzi duzu?

Beti esaten digute Afrikan demokrazia eta berdintasuna falta direla. Nik uste dut hemen falta direla. Hemengoek demokraziaren eta berdintasunaren gurasotzat dute euren burua, baina ez dira horren eredu izaten. Beltzak hemen egiten du lan, hemen kotizatzen du, hemen du familia, baina ezin du aukeratu, ezta aukeratua izan ere.

Nafarroan 40.000 etorkin inguru zaudete bozkatzeko eta bozkatuak izateko eskubiderik gabe. Bada interes politikorik horren atzean?

Uste dut sekula ez gaituztela pertsona kontsideratu. Bozkatzeko eskubidea bagenu, orain garena baino zerbait gehiago bezala kontsideratu beharko gintuzkete. Haien asmoetan ez dagoenez gu pertsonatzat hartu eta eskubideak ematea, ez digute bozkatzen uzten. Erabateko blokeoa da, beltza bazterrean egon behar da, lan miserablea egiten.

Zer neurri hartu daiteke eskubide horiek bermatzeko?

Uste dut bizileku-baimena nahikoa izan beharko litzatekeela bozkatzeko,


inor nazionalitatea lortzera derrigortu gabe, horrek norbere nazionalitateari uko egitea dakarrelako. Nazionalitatea hautazko zerbait izan beharko litzateke naziotasun hori nahi eta sentitzen duenarentzako, baina ez eskubide batzuk eman edo kendu ditzaken paper bat. Bizileku-baimenak aski beharko luke bertako edonork egin dezakeen oro guk ere egin ahal izateko.

Asko hitz egiten da kulturartekotasunaz.

Hitz eder asko dago, baina askok ez dakite kultur-aniztasuna zer den ere. Kohesioa behar da, elkarbizitza, elkar ulertzea. Kulturartekotasunean bizi den hiri bat ezin da izan hizkuntz bakarreko hiria. Errespetatu behar da kolore, hizkuntza eta sinesmen bakoitza. Batzuen tizat integrazioa da beltzak bere egitea inguruko guztia, baina besteek ere jaso behar dute beltzarengandik. Integratioa trukaketa bat izan behar da; beste, etorkina egunero proban jartzea litzateke. Guk gauza asko ikasten ditugu hemen, baina uste dugu zerbait, txikia bada ere, irakats diezaikegula hemengo jendeari ere. ●



Hauteskundeen azken kapitulua berridazteko eskatuz 10.000 sinadura jaso dituzte Change.org bidez



ABALTZISKETAKO GIZASEME BAT, BERE HERRIKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK EZAGUTU BERRITAN.

Bi astez ikus-entzule guztiak engantxatuta eduki dituen "Udal eta Foru hauteskundeak" telesailak zale batzuen haserrea eragin du: joan den igandean, hauteskundeak nola bukatu diren jakin ostean, sare sozialak sutan jarri dira. "Baina ze mierda da hau?!? PSOEk irabazi du nire herrian?!? Gidoilariak: hil zaitezte" bezalako mezuek milaka bertxio izan dituzte azken orduetan. Asko ez daude ados bozak horrela bukatzarekin eta ekoizleek lau urte barru denboraldi


berri bat iragarri arren, animoak ez dira baretu. "Hauteskundeak nik nahi dudan bezala bukatzearen alde" abian jarritako sinadura-bilketak milaka lagunengatik atxikimendua jaso du dagoeneko. Bestalde, hauteskundeak irabazi dituen politikari batek Beranduegiri adierazi dionez, hemendik aurrera ez dute bulegotik kanpo eszenarik grabatuko: "Aurrekontu guztia xahutu dugu kanpainan, kalera ateratzen garen plantak egiteko *chroma key* bat erabili beharko dugu". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Arrantza eta beste arte plastiko batzuk



Ezkongaiak eta barra librerako ilara



GOT sekula ikusi ez dutenak astunagoak dira atal guztiak irentsi dituztenak baino

Game of Thrones telesailaren atal bakar bat ere ikusi ez duten txiolariek dira sare sozialek inoiz ezagutu duten espezierik astun eta aspergarriena, Udako Euskal Unibertsitateak eta Massachusetts-eko MIT Teknologia Institutuak elkarlanean egindako ikerketaren arabera. Gaizka Izagirre neurozientzialariaren hitzetan, telesaila sekula ikusi ez duen jendeak idatzi du txio gehien #GOT traolarekin. "Pentsatzen dugu dela telesailaren zale sutsuek osatutako gehien- go isilaren aurrean alternatibo plantak

egiteko. Badakizue, hor hasten dira: 'Zer esan nahi dute GOT hizkiek, Gora Trotski?', 'Nor da Daenerys Targaryen, futbol jokalaria bat?' Zir isin nihi diti GIT hizkiak, Giri Tritski? Nir di Diiniris Tirgiriin, fitbil jikiliri bit? Benetan, zein astunak diren!'. Izagirrek esan digu asteburuan fenomeno bera errepikatu dela: "Askoz ere matraka handiagoa eman dute hauteskundeez ezer jakin nahi ez zutenek, herri guztietako emaitzen gainean zerbait idatzi duten politologo potentzial horiek guztiek baino". ●



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!



EKAINAK 01

XV. Literatur mintzaldia **Koldo Izagirre**

Aurkezlea: Patri Urkizu

📍 Mediateka Hendaia 🕒 18:00

EKAINAK 05

X. Irakurraldi publikoa **ARGIA** astekaria

Zatoz gurekin irakurtzera
eta entzutera

📍 Mediateka Hendaia 🕒 14:00-19:00

